

Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017
Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzailea
(Mantentza lanak eta Produkzioetako Zerbitzuak)
Galdera sorta

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ATAL OROKORRA

1. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzueta lan-kontratudun Langileen iii. Hitzarmen Kolektiboaren 15. Artikuluak hauei egiten die erreferentzia:**
 - a) Baimenei
 - b) Espainiako Konstituzioari
 - c) Gizarte Funtzari
 - d) Lanpostu hutsak betetzeari
2. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, Enplegatu Publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin hauetan...**
 - a) Interes orokorrak zaintzeko zereginetan
 - b) Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan
 - c) Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan
 - d) Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan
3. **Zeri buruzkoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. kapitulua?**
 - a) Ordainsari-eskubideak
 - b) Oinarrizko eskubideak
 - c) Biltzeko eskubidea
 - d) Lanaldia, baimenak eta oporrak izateko eskubidea
4. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?**
 - a) Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa
 - b) Oposizioa edo oposizio-lehiaketa
 - c) Oposizioa
 - d) Berariaz egindako lan-poltsa
5. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:**
 - a) Nazionalitatea galtzea
 - b) Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea
 - c) Funtzionario izateari uko egitea
 - d) Lanerako aldi baterako ezintasuna
6. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, honela sailkatuko dira langile lan-kontratudunak:**
 - a) Lan-arloko legeriaren arabera
 - b) Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera
 - c) 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera
 - d) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera

7. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langile lan-kontratu-dunen III. Hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta konpontze-ko eskumena?**
- a) Batzorde Parekideak
 - b) Negoziazio Batzordeak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Plangintza Batzordeak
8. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**
- a) Berezko zerbitzua
 - b) Besteren zerbitzua
 - c) Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua
 - d) Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua
9. **UPV/EHU-k, bere Estatutuen 5.3 Artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**
- a) Adierazpen-askatasuna
 - b) Erlijio-askatasuna
 - c) Katedra-askatasuna
 - d) Pentsamendu-askatasuna
10. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**
- a) Gizarte Kontseilua
 - b) Gobernu Kontseilua
 - c) Errektorea
 - d) Bizkaiko Campuseko Batzarra
11. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**
- a) Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak
 - b) Ikasleak eta langile autonomoak
 - c) Irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak
 - d) Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak
12. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nork ezarriko ditu Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordainsariak?**
- a) Errektoreak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Gobernu Kontseiluak

13. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**
- a) Ikastegietako batzarren akordioen arabera
 - b) Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera
 - c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera
14. **UPV/EHU-ren Estatutuen Arabera, UPV/EHU-ko langile funtzionarioak edo lan-kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan, hauek adierazi beharko dira, nahitaez:**
- a) Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak
 - b) Epaimahaiko kideen izen-deiturak
 - c) Deialdiari dagozkion zuzkidurak
 - d) Emaitzak argitaratuko diren data
15. **Zeini dagokio Administrazio eta Zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari
 - b) Gizarte Kontseiluari
 - c) Gobernu Kontseiluari
 - d) Enpresa Batzordeari
16. **Zein da Administrazio eta Zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkaritza-organo bateratua?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Gobernu Kontseilua
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
17. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileen diziiplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen legeriak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**
- a) Aldezleak
 - b) Errektoreak
 - c) Arbitraje Batzordeak
 - d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak
18. **Unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**
- a) Aldezlea
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea
 - d) Errektorea

19. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsua jarri ahalko da:**
- a) Errektorea zerikusia duen alderdia denean
 - b) Ezingo da jarri errekurtsorik
 - c) Beti jarri ahal izango da errekurtsua
 - d) Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean
20. **Unibertsitateko biblioteca ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea da, bai eta hauekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere:**
- a) Unibertsitate osoaren funtzionamendua eta kudeaketa
 - b) Ikasleen ikasteko gaitasuna garatzea
 - c) Irakasleen ikertzeko gaitasuna
 - d) Gizarteari zerbitzua ematea
21. **UPV/EHU-k hizkuntza ofizial hauen erabilera normal eta ofiziala bermatuko du:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa
 - b) Ingelesa eta gaztelania
 - c) Ingelesa eta euskara
 - d) Euskara eta gaztelania
22. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**
- a) Gobernu Kontseiluak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Langileen Batzarrak
23. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**
- a) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz
 - b) Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz
 - c) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz
 - d) Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz
24. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**
- a) Gerentea
 - b) Errektorea
 - c) Kontratazio eta erosketen gerenteordea
 - d) Unibertsitateko Klaustroa

25. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**
- a) Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
 - b) Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
 - c) Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzupean dauden langile lan-kontratudunei.
 - d) Unibertsitate pribatueta langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
26. **Honela sailkatzen dira langile publikoak...**
- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratadunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
 - b) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
 - c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratadun finkoak.
 - d) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratadun finko nahiz aldi batekoak.
27. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratadunak dira...**
- a) Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.
 - b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
 - c) Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoiak direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
 - d) Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.
28. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**
- a) Errektorea.
 - b) Dekanoak.
 - c) Gobernu Kontseiluak.
 - d) Gizarte Kontseiluak.
29. **Hauek dira UPV/EHU-ko segurtasun- eta osasun-batzordeak:**
- a) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.
 - b) Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.
 - c) Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.
 - d) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.

30. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.
31. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren eraginpeko langileak?**
- a) Ez dago talde profesionalen araberrako sailkapenik.
 - b) I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
 - c) I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
 - d) I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.
32. **Zein dira UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langileak?**
- a) Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - b) Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - c) Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - d) Langile funtzionarioak bakarrik.
33. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, honela egituratzen dira Unibertsitateko Ikasketa Ofizialak:**
- a) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
 - b) Bi ziklotan: gradua eta masterra.
 - c) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
 - d) Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.
34. **Nola du izena UPV/EHU-ko arartekoak?**
- a) Ararteko.
 - b) Herriaren defendatzaile.
 - c) Aldezle.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
35. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**
- a) Campus anitzekoa da.
 - b) Pluricampus motakoa da.
 - c) Campus bakarrekota da.
 - d) Bi campusekota da.

36. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**
- a) Eskola eta fakultateak.
 - b) Unibertsitateko campusak.
 - c) Ikastetxe nagusiak.
 - d) Ikasgelategiak.
37. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, dekanoren agintaldia...**
- a) 2 urtekoa izango da.
 - b) 3 urtekoa izango da.
 - c) 4 urtekoa izango da.
 - d) 5 urtekoa izango da.
38. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko plan estrategikoa eta hizkuntza-normalkuntzarako plana onartzea?**
- a) Klaustroari.
 - b) Gobernu Kontseiluari.
 - c) Errektorego-taldeari.
 - d) Errektoreari.
39. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Zuzendaritza Kontseiluak.
 - c) Campuseko Batzarrak.
 - d) Gobernu Kontseiluak.
40. **Nork izendatzen ditu dekanook eta ikastegietako zuzendariak?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Errektoreak.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Eusko Jaurlaritzak.
41. **Gizarte kontseilua...**
- a) UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
 - b) UPV/EHUn kide anitzeko organo bat da.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.
42. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
 - c) Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
 - d) Saileko Kontseiluak.

43. **Aldezlearen helburua hau izango da:**
- a) Unibertsitatea ordezkatzeko prozedura judizialetan.
 - b) Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
 - d) Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.
44. **Honi dagokio hasierako onespina ematea fakultate bat sortzeko proposamenei**
- a) Gobernu Kontseiluari
 - b) Fakultateko Batzarrari
 - c) Errektoreari
 - d) Unibertsitate-gaietako sail eskudunari
45. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren Administrazio- eta Ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**
- a) Errektorea.
 - b) Gerentea.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordea.
46. **Noren mende dago organikoki eta funtzionalki gerentzia?**
- a) Gobernu Kontseiluaren mende
 - b) Ekonomi Gaietarako errektoreordearen mende
 - c) Errektorearen mende
 - d) Gizarte Kontseiluaren mende
47. **UPV/EHU-ko gizarte-kontseiluak:**
- a) Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu
 - b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake
 - c) Campus berriak sor ditzake
 - d) Inbertsio eta azpiegituren urte anitzetako programazioa onartzen du
48. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak euskal unibertsitate-sistemaren legearen 104. Artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**
- a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrera eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan
 - b) Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da
 - c) Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan
 - d) Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da

49. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuzko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikasketa-titulaziojakin bat izatea:**
- a) Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
 - b) Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
 - c) Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
 - d) EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.
50. **Hitzarmen kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**
- a) 80.
 - b) 85.
 - c) 100.
 - d) Gutxienezko kopuru bat dago, baina gehienekorik ez.
51. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**
- a) Praktikaldiko kontratuarekin.
 - b) Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
 - c) Txanda-kontratuarekin.
 - d) Prestakuntzarako kontratuarekin.
52. **Erretiro partziala hartzen duten langileek zer izenpetzen dute?**
- a) Lan edo zerbitzu jakin baterako lanaldi partzialeko lan-kontratua
 - b) Erretiro partzialeko lan-kontratua
 - c) Lanaldi partzialeko txanda-kontratua
 - d) Lanaldi partzialeko lan-kontratua
53. **UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**
- a) Gutxienez urtebeteko antzintasuna badute enpresan.
 - b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
 - c) Gutxienez bi urteko antzintasuna badute enpresan.
 - d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.
54. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Laborategiko teknikari espezialista.

55. **Zer da Administrazio eta Zerbitzuetako langileen erreferentziako plantila?**
- a) Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da
 - b) Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da
 - c) Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da
 - d) Lanpostuak baloratzeko tresna bat da
56. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:**
- a) Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
 - b) Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
 - c) Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuetarako bakarrik.
 - d) Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.
57. **Behin-behineko langileei dagokienez:**
- a) Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
 - b) Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
 - c) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
 - d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
58. **Hirurtekoak:**
- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
 - b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
 - c) Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
 - d) Ez dira ordainsaritzat hartzen.
59. **Desgaitasuna duten pertsonak:**
- a) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
 - b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurri-rik desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.
 - c) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.
 - d) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
60. **B Taldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, hau eskatuko da:**
- a) Graduako tituluaren jabe izatea.
 - b) Goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izatea.
 - c) B1 talderako, graduako tituluaren jabe izan behar da. B2 talderako ez da halakorik behar.
 - d) Batxilergoko tituluaren edo teknikari-tituluaren jabe izatea.

61. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**
- a) Oposizioa.
 - b) Lehiaketa.
 - c) Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.
 - d) Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publiko-rako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.
62. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**
- a) Inoiz ez.
 - b) Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.
 - c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
 - d) Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.
63. **Nolanahi ere, Enplegu Publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**
- a) Hiru urte.
 - b) Lau urte.
 - c) Hamar urte.
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:
64. **Langileen Estatutuaren arabera, hauetako zein ez da Langileen Oinarrizko Eskubideetako bat?**
- a) Greba-eskubidea.
 - b) Sindikatua askatasunez aukeratzeko eskubidea.
 - c) Lanbide-heziketa jarraitua izateko eskubidea.
 - d) Enpresan informazioa jasotzeko, hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea.
65. **Lan-kontratua**
- a) Idatziz egin behar da beti.
 - b) Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
 - c) Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
 - d) Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.
66. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**
- a) Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
 - b) Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
 - c) Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
 - d) Ez dago araututa Langileen Estatutuan.

67. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**

- a) Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
- b) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
- c) Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
- d) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.

68. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**

- a) Dedikazio-erregimena.
- b) Hizkuntza-eskakizuna.
- c) Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
- d) Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.

69. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen Arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**

- a) Beti % 45 izango da.
- b) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
- c) Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
- d) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.

70. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**

- a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
- b) Administrazioaren baimena duenean EAEko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatesitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
- c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
- d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.

71. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**

- a) Lanpostu-mailako osagarria.
- b) Produktibitate-osagarria.
- c) Berariazko osagarria.
- d) Ordainsari bereziak.

72. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko ez betetzea?**
- a) Falta oso larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta larria.
 - b) Falta arina.
73. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**
- a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
 - b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
 - c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
 - d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
74. **Zer unibertsitatek osatzen dute euskal unibertsitate sistema?**
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
 - c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.
75. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**
- a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
 - b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
 - c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
 - d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.
76. **Unibertsitate-planak:**
- a) Lau urteko iraupena du.
 - b) Bost urteko plan bat da.
 - c) Hiru urteko plan bat da.
 - d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

77. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
 - b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
 - c) Gizarte Kontseilua.
 - d) EAEko Errektoreen Batzarra.
78. **Unibertsitate Publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**
- a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
 - b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
 - c) Ekarpentzako subsidiario bat dira.
 - d) Baldintzapeko finantzaketa-erakunde bat dira.
79. **Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
 - b) Unibertsitateen gaitasun eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
 - c) Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
 - d) Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.
80. **UPV/EHU:**
- a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
 - b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
 - c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
 - d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.
81. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko Administrazio Eta Zerbitzuetako Langileen ordezkari-erakunde bat?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Ikastegietako batzarrak.
 - d) Atal sindikalak.
82. **Unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**
- a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
 - b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
 - c) Unibertsitate-gaitasun eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.

83. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, euskal autonomia erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
 - b) Autonomia-erkidegoko instituzioei.
 - c) Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
 - d) Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.
84. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**
- a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
 - b) Ekintza positibokoak.
 - c) Ekintza publikokoak.
 - d) Diskriminazio positibokoak.
85. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**
- a) Lurralde historiko guztietan.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
 - d) EAEko udalerri guztietan.
86. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**
- a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
 - b) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
 - c) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
 - d) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.
87. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio programa edo zerbitzuak ematea ondoan zehazten diren emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten, zerbitzu horien izaera dela-eta erkidego osorako era bateratuan eman beharrekoak direnean:**
- a) Bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - b) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek.
 - c) Zuzeneko bereizkeria jasaten duten emakumeek.
 - d) Zeharkako bereizkeria jasaten duten emakumeek.

88. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea helburu duten era hone-tako baliabide eta zerbitzuak ezartzea:**
- a) Publiko edo pribatuak.
 - b) Soziokomunitarioak.
 - c) Publikoak.
 - d) Publiko eta pribatuak.
89. **2005eko otsailaren 18ko gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako 4/2005 legearen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez ordezkaritza hau dutenean:**
- a) % 50eko ordezkaritza dutenean.
 - b) % 40tik gorako ordezkaritza dutenean.
 - c) % 45eko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
 - d) % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
90. **UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**
- a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
 - b) UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
 - c) UPV/EHUren zerbitzupeko funtzionarioei.
 - d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzue-tako langileei.
91. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**
- a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
 - b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
92. **Promozio profesionalean parte hartu ahalko dute:**
- a) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
 - b) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxie-nez bi urteko antzintasuna badute.
 - c) UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
 - d) Gutxienez 5 urteko antzintasuna duten langile guztiek.

93. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**

- a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
- b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daudenak bakarrik.
- c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daudenak izan ezik.
- d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.

94. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren arabera, norberaren kontuetaarako baimena:**

- a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetaarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
- b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetaarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
- c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetaarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
- d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetaarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.

95. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**

- a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzinatasunerako.
- b) Antzinatasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
- c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzinatasunerako.
- d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzinatasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.

96. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**

- a) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
- b) Langile funtzionarioek bakarrik.
- c) Langile lan-kontratadunek bakarrik.
- d) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.

97. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratadun langileen hitzarmen kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**

- a) Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari eta administrazioko beste horrenbeste ordezkari.
- b) Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazioko beste horrenbeste ordezkari.
- c) Gehiengoa duen sindikatuko bi ordezkari, Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten gainerako sindikatuetaorde ordezkari batek eta Administrazioko beste horrenbeste ordezkari.
- d) Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.

98. **Prebentzioko ordezkariak:**

- a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
- b) Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariekin batera.
- c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
- d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

99. **Nori dagokio UPV/EHU-ko erregistro orokorra mantentzea?**

- a) Idazkari nagusiari.
- b) Errektoreari.
- c) Dagokien zerbitziburuei.
- d) Campuseko errektoreordetzei.

100. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espresuki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**

- a) Gobernu Kontseiluari.
- b) Klaustroari.
- c) Errektoreari.
- d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Fusible bat zirkuitu batean txertatzen den elementu bat da, zirkuitua babesten duena. Zein da haren ezaugarri nagusia?**
 - a) Beirazkoa izan behar du, ondo ikusteko nola pasatzen den korrante alfernoa bi noranzkoetan.
 - b) Zirkuituan dagoen puntu elektrikoki ahulena izan behar du.
 - c) Erresistentziarik handieneko elementua izan behar du, gainkargak ondo jasan ahal izateko.
 - d) Urtze- edo lurruntze-tenperatura altua izan behar du.
2. **Zurezko pieza bat zenbait zatitan ebakitzeko, erreminta hauetako zein erabiliko zenuke?**
 - a) Birabarkia.
 - b) Trintxa.
 - c) Arraspa.
 - d) Zerrotea.
3. **Lan bat egin behar eta Norbera Babesteko Ekipamendu (NBE) egokirik ez baduzu, zer egin behar duzu?**
 - a) Lana kontu handiz egin.
 - b) Lan-arriskuen prebentzio-arauak kontuan ez hartu.
 - c) Lan hori ez egin NBEa izan arte.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
4. **Zer ezaugarri dute puntapax motako iltzeak?**
 - a) Ez dute sendo heltzen.
 - b) Punta biribila dute.
 - c) Buru handia dute.
 - d) Gainerakoek baino bi aldiz altzairu gehiago dute.
5. **Zer da ur-instalazio baten emaria?**
 - a) Instalazioaren altuera.
 - b) Instalazioaren hodiaren lodiera.
 - c) Instalazioak denbora-unitateko ematen duen ur kantitatea.
 - d) Instalazioaren materialak egiten duen erresistentzia.
6. **Ate multzoaren zer partetan ezarri ohi da gontzaren atal arra, erroa?**
 - a) Atean.
 - b) Eskutokian.
 - c) Juntura-estalkian.
 - d) Markoan.

7. **Zer da kalibre bat?**
- a) Doitasunezko neurgailu bat.
 - b) Burdinazko hodiak ahokatzeko pieza bat.
 - c) Zarpiatuaren akabera mota bat.
 - d) Berokuntza-zirkuituetako matxura bat.
8. **Burdinazko hodi bat kanpoaldetik hariztatzeko, hau erabiliko dugu:**
- a) Hariztatzeko ardatza.
 - b) Azkoin bat.
 - c) Torloju bat.
 - d) Hariztatzeko terraila.
9. **Eraikinetan, larrialdietarako ateak:**
- a) Elektrikoki irekitzen dira, sakagailu bidez.
 - b) Eskuz irekitzekoak dira.
 - c) Automatikoki irekitzen dira sutea dagoenean.
 - d) Sutea dagoenean, ate-irekitzea eta -ixtea eraikineko larrialdietarako arduradunak erabakitzen du.
10. **Obra baten segurtasunerako, seinale mota bat baino gehiago erabiltzen dira. Hauetako zein EZ da seinale horietakoa?**
- a) Argi-seinaleak.
 - b) Seinale akustikoak.
 - c) Ikus-seinaleak.
 - d) Itxurazko seinaleak.
11. **Aldamioaren plataformara iristeko modua hau da:**
- a) Atxikita edo aldamioan integratuta dauden alboko zerbitzu-eskaileretatik igotzea.
 - b) Aldamioaren egituraren alboko langetatik igotzea.
 - c) Leihotik salto egitea.
 - d) Soka batetik igotzea.
12. **Hormigoi-makinetako transmisio-elementu nagusiak hauek dira: poleak, uhalak, bolanteak eta engranajeak. Elementu horiek istripuak eragin ditzakete maiz, hala nola arroparen parte bat trabatzea (hariak, bufandak, gorbatak, ileak, etab.). Adierazi zein den babes-neurririk onena era horretako istripuak saihesteko:**
- a) Ez hurbiltzea lanean ari diren hormigoi-makinetara.
 - b) Babes-eskularruak erabiltzea.
 - c) Babesgarriak jartzea transmisio-elementuetan.
 - d) Ez da beharrezkoa babes-neurri berezirik hartzea.

13. **Zizel edo punta-zizel bat erabili behar dugunean, hauetako zer neurri hartu behar dugu lesioak saihesteko?**
- a) Sorbatza fabrikatik dakarrenaren berdina izatea, eta, berdina ez bada, zorroztea.
 - b) Egiaztatzea ez duela bizarrik.
 - c) Zizelari hautsa kentzea, olio z hezetako esponja bat erabiliz.
 - d) Egiaztatzea neurria alboko markan duenaren berdina dela.
14. **Hauetako zein da estutze-tresna bat?**
- a) Espatula.
 - b) Sarjenta.
 - c) Kurrikak.
 - d) Aiztoak.
15. **Adierazi material hauetako zein den egokiena isolamendu akustiko bat egiteko:**
- a) Papera.
 - b) Kortxozko orria.
 - c) Plastikoa.
 - d) Zurezko panelak.
16. **Konglomeratzaileek beste material batzuk lotzeko balio dute. Hiru konglomeratzaile mota daude. Hauetako zein dira?**
- a) Karea, igeltsua eta hondarra.
 - b) Zementua, legarra eta igeltsua.
 - a) Karea, igeltsua eta zementua.
 - d) Igeltsua, zementua eta hondarra.
17. **Kotei buruz ari garela, termino hauetako zein EZ dagokio kotari?**
- a) Kota partzialak.
 - b) Kota metatuak.
 - c) Aireko kotak.
 - d) Kota topografikoa.
18. **Iturgintzan eta berokuntzan kapilaritate bidezko soldaduraz hitz egiten denean, soldadura hau adierazi nahi da:**
- a) Kobrezko hodian soldadura.
 - b) Berunezko hodian soldadura.
 - c) Burdinazko hodian soldadura.
 - d) PVCzko hodian soldadura.

19. **Etxean edo industrian erabili ondoren, huste- edo estolda-sistema batera isurtzen diren urak honela izendatzen dira:**
- a) Euri-urak.
 - b) Hondakin-uren instalazioetarako.
 - c) Lohia.
 - d) Edateko urak.
20. **Nola sailkatzen dira zurak erresistentziaren arabera?**
- a) Gogorrak, ez hain gogorrak, bigunak eta oso bigunak.
 - b) Biguna, kaoba, pinua eta Flandes.
 - c) Gaztaina, urkia, beltza eta ez hain gogorra.
 - d) Eukaliptoia, pinua eta pagoa.
21. **Zein dira kontratxapatuzko panel baten neurri komertzialak mm-tan?**
- a) 205×189 .
 - b) 200×200 .
 - c) 122×244 .
 - d) 230×147 .
22. **Zerez egina dago latorria?**
- a) Altzairua eta eztainua.
 - b) Altzairua eta metala.
 - c) Burdina eta eztainua.
 - d) Burdina eta metala.
23. **Zer da forjaketa?**
- a) Metalak hotzean ebakitzeko zerra edo disko mekaniko bat.
 - b) Puntzonatzeko makina bat, bere puntzoi eta matrize sortarekin.
 - c) Burdina, altzairua eta beste metal batzuk eskuz modelatzeko prozedura.
 - d) Instalazio finkoko makina tximiniadun bat.
24. **Zer babes-sistema ditu etengailu magnetotermiko batek?**
- a) Gailu termiko bat, lineako korrante-gainkargatik babesten duena.
 - b) Ekintza lasterreko desarragailu magnetiko bat, zirkuitulaburreko korranteetatik babesten duena.
 - c) Eskuz konektatzeko eta deskonektatzeko sistema bat.
 - d) Haiei guztiei.

25. **Instalazio elektrikoetako kableak izendatzeko, kode-kolore bat erabiltzen da:**
- a) Kable beltza 0 volteko potentziarekin bakarrik erabiltzen da, eta lurreko hargunera konektatzen da.
 - b) Kable urdinak beti adierazten du 230 V-eko fase bateko korrontea dela.
 - c) Kable hori/berdea lagungarria da, eta balio desberdin bat hartzen du zirkuitu bakoi-tzean.
 - d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.
26. **Lanpara batek adierazten badu gehienez 20 W onartzen dituela, hau adierazten ari da:**
- a) 40 W-erainoko bonbilla konbentzional bat instala dezakegula.
 - b) Kontsumo txikiko bonbilla bat instalatu dezakegula, 60 W-eko bonbilla konbentzio-nal baten baliokidea dena.
 - c) Lanpara gehienez ere 20 orduz izan dezakegula piztuta.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
27. **Nola zorroztu zenuke zerrote bat?**
- a) Arraspa batez.
 - b) Esmeril-harri batez.
 - c) Zorroztarri batez.
 - d) Lima triangeluar batez.
28. **Zer tresnarekin markatuko zenuke 150°-ko angelu bat?**
- a) Sasieskuaira batez.
 - b) Eskuaira batez.
 - c) Kalibre batez.
 - d) Metro batez.
29. **Zer da ur-instalazio baten hargunea?**
- a) Instalazioak presiorik txikiena duen puntua.
 - b) Instalazioaren banaketa horizontalaren hodiaren lodiera.
 - c) Ura txorrotetatik ateratzean izan dezakeen gehieneko presioa.
 - d) Sare nagusia erreferentziako instalazioarekin batzen den puntua.
30. **Altzairuzko piezak soldatzeko, zer soldadura mota erabiltzen da?**
- a) Oxidoazetilenikoa.
 - b) Autogenoa.
 - c) Arku elektrikoa.
 - d) Hotza.

31. **Sarrailek alde baterako bakarrik balio dute?**
- a) Sarraila motaren arabera.
 - b) Bai, guztiek.
 - c) Ez, batek ere ez.
 - d) Haritzeko ateen sarrailek bakarrik.
32. **Instalazio elektrikoetan lan egiteko lehenengo urrezko araua hau da:**
- a) Instalazioaren eskema elektrikoa bertikalean izatea.
 - b) Etengailuak erabiliz, tentsio-iturri guztiak irekitzea.
 - c) Instalazioaren eskema elektrikoa horizontalean izatea.
 - d) Aldamenean pertsona bat izatea, behar dugun erreminta emango diguna.
33. **Horma batean koadro bat jarri beharko bazenu, zer erreminta erabiliko zenuke?**
- a) Arkatza, takoak eta arraspa.
 - b) Arkatza, mailua eta bihurkina.
 - c) Arkatza, plaunkaia eta paleta.
 - d) Arkatza, markagailua, zulagailua eta bihurkina edo aliketak.
34. **Nazioarteko unitate-sisteman, zein da luzera-unitatea?**
- a) Milimetroa.
 - b) Metroa.
 - c) Milia.
 - d) Litroa.
35. **Nazioarteko unitate-sisteman, zein da denbora-unitatea?**
- a) Segundoa.
 - b) Kilometro/ordu-a.
 - c) Kilometro/segundo-a.
 - d) Kilogramoa.
36. **Erreminta hauetako zein EZ da igeltserotzakoa?**
- a) Paleta.
 - b) Plaunkaia.
 - c) Galga.
 - d) Polimetroa.
37. **Arku elektriko bidezko soldaduran, zer izen du material osagarria daukan multzoak?**
- a) Burdinazko hagaxka.
 - b) Letoizko hagaxka.
 - c) Elektrizana.
 - d) Elektrodoa.

38. **Zer gas mota erabiltzen dira soldadura oxiazetilenikoan?**
- a) Gas naturala.
 - b) Propanoa eta oxigenoa.
 - c) Azetilenoa eta oxigenoa.
 - d) Azetilenoa eta propanoa.
39. **Zer unitatetan neurtzen da korrante elektrikoaren intentsitatea?**
- a) Ampere.
 - b) Ohmak.
 - c) Faradak.
 - d) Voltak.
40. **Zer igeltsu mota erabiltzen da akaberetan?**
- a) Zuria.
 - b) Beltza.
 - c) Grisa.
 - d) Marroia.
41. **Zer izen du ate baten markoaren goialdeak?**
- a) Zangoa.
 - b) Langeta.
 - c) Markoondoa.
 - d) Ateburua.
42. **Zer erabiliko zenuke hormigoi-nahaste bat egiteko?**
- d) Ura, zementua eta hondarra.
 - b) Ura eta zementua.
 - c) Ura eta hondarra.
 - d) Ura, zementua, hondarra eta hartxintxarra.
43. **Pisu bat da, gehienetan metalezkoa, forma koniko edo zilindrikoa duena, eta berti-kaltasuna adierazteko erabiltzen da. Zer izen du?**
- a) Paleta.
 - b) Birabarkia.
 - c) Beruna.
 - d) Kalibrea.
44. **Zer neurri hartu behar dira 25 metrotik gorako tarte zuzenak dituzten etxeko ur be-roko instalazioetan?**
- a) Dilatagailuak jartzen dira.
 - b) Hodiaren sekzioa 1,5 aldiz handitzen da.
 - c) Batere ez.
 - d) Euskarriak jarri behar dira 3 m-an behin.

45. **Esan giltza hauetako zein EZ du erabiltzen iturgileak:**
- a) Giltza finkoa.
 - b) Giltza ingelesa.
 - c) Kate-giltza.
 - d) Giltza turkiarra.
46. **Likido sukoi baten aurrean bazaude (B klaseko sua, likidoak, UNE 23010 arauaren arabera), esan zer agente itzaltzaile litzatekeen oso egokia su mota horretarako:**
- a) Ur-zorrotada.
 - b) BC hautsa (konbentzionala).
 - c) Anhidrido karbonikoa.
 - d) Metaletarako hauts espezifikoa.
47. **Eroanbidearen estankotasuna bermatzeko, bada soldadura mota bat mastika sintetikoak erabiltzen dituen piezak lotzeko. Zer izen du?**
- a) Soldadura aglutinatzailea.
 - b) Soldadura sendoa.
 - c) Kapilaritate bidezko soldadura.
 - d) Hotzeko soldadura.
48. **Zein da TICHELMAN sistemaren oinarria?**
- a) Joateko eta itzultzeko luzera berdinak jartzea erradiadore guztietarako, presio-oreka ziurtatzeko.
 - b) Kaloria-kontsumoa banaka zenbatzea, erradiadore bakoitzean kontagailua bat jarrita.
 - c) Hodi nagusi bat galdararen ondoan jartzea. Hala, hodi biltzaile gisa jokatzeko du, gorako hodiak elikatzen; eta gorako hodiekin erradiadoreak elikatzen dituzte.
 - d) Aerotermoak jartzea, uraren presioa kontrolatzeko.
49. **Zerekin funtzionatzen dute hidrokarbuo halogenatuak dituzten itzalgailuek?**
- a) CO₂-a.
 - b) ABC hautsa.
 - c) Apar kimikoa eta aditiboak.
 - d) Haloi 1211-a.
50. **Zertarako balio du gramilak?**
- a) Pieza eskuairatu baten ertzekiko lerro paraleloak trazatzeko.
 - b) Instalazio elektriko batean matxurak aurkitzeko.
 - c) Juntura hariztatuak muntatu eta desmuntatzeko.
 - d) Kolpekatzeko, iltzatzeko eta iltzeak kentzeko.

51. **Lantoki baten barnean, baldin eta eremu batzuetan berariazko baimena duten pertsonak bakarrik edo, salbuespen gisa, eremu horietan lanen bat egiteko edo zerbait kudeatzeko behar den akreditazioa dutenak bakarrik sar badaitezke, zer izen dute eremu horiek?**
- a) Barne-eremuak.
 - b) Sarrera mugatuko eremuak.
 - c) Barne-zerbitzuko eremuak.
 - d) Sarbide publikorik gabeko eremuak.
52. **Zenbat espantsio-ontzi aurki daitezke ur beroko galdara-sistemetan?**
- a) Bi.
 - b) Hiru.
 - c) Lau.
 - d) Bat.
53. **Uraren presioa eta emaria neurtzeko, zer erabiliko dugu?**
- a) Termometroa.
 - b) Manometroa.
 - c) Barometroa.
 - d) Irakurgailu optikoa.
54. **Erradiadoreak dituen berokuntza-sistema bateko hodiak zer dira?**
- a) Instalazio bero-igorlea.
 - b) Instalazio termikoa.
 - c) Banaketa-instalazioa.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez.
55. **Beruna erreminta bat da, eta honela sailkatzen da:**
- a) Eraispen-erreminta.
 - b) Garraio-erreminta.
 - c) Harriz lantzeko erreminta.
 - d) Nibelatze-erreminta.
56. **Eraikin bateko sarbidea kontrolatzeko sistema batean, zer da hatz-marka digitala?**
- a) Nortasuna ezagutzeko sistema material bat.
 - b) Nortasuna ezagutzeko sistema pertsonal bat.
 - c) Nortasuna ezagutzeko ezagutza-sistema bat.
 - d) Nortasuna ezagutzeko sistema mekaniko bat.

57. **Berokuntza-sistema batean, aukera hauetako zein ez da zentral termikoaren elementu bat?**
- a) Tximinia.
 - b) Zirkulazio-ponpa.
 - c) Erradiadoreak.
 - d) Espantsio-ontziak.
58. **Larrialdien garrantziaren arabera, baldin eta istripu bat gertatzen bada eta istripua aise eta laster kontrola eta mendera badezake lokal, areto edo sektoreko pertsonalak bertako babes-bitartekoen bidez, honela sailkatuko da larrialdia:**
- a) Larrialdi txikia.
 - b) Larrialdi partziala.
 - c) Larrialdi orokorra.
 - d) Ez dago larrialdirik.
59. **Zein da behe-tentsioko zirkuitu elektrikoetako zeharkako kontaktuetatik babesteko etengailua?**
- a) Ebakidura omnipolarreko etengailu orokor automatikoa (gaztelaniaz, IGA sigla du).
 - b) Etengailu diferentziala.
 - c) Etxebizitzako edo lokaleko barne-zirkuituetako bakoitza gainkargetatik eta zirkuitulaburretatik babesteko ebakidura omnipolarreko gailua (gaztelaniaz, PIA sigla du).
 - d) Bat ere ez da zuzena.
60. **Isolamendu elektriko organikoen barnean, hau dago:**
- a) Galatita.
 - b) Mika.
 - c) Magnesia.
 - d) Mikroa.
61. **Entxufe-oinen artean, hauetako zein EZ da oinarritzko motetako bat?**
- a) Europarra.
 - b) Amerikarra.
 - c) Asiarra.
 - d) Denak dira oinarritzko entxufe motak.
62. **Zertarako erabiltzen da lau edo bost parte hondar bahetuz eta parte bat zementuz osatutako morteroa?**
- a) Azulejuak jartzeko.
 - b) Lauzadurak egiteko.
 - b) Zarpiatzeko.
 - d) Kofratuak egiteko.

63. **Zer izen du horman ezartzen den hirugarren estaldura-geruzak?**
- a) Emokadura.
 - b) Luzitua.
 - c) Talotxadura.
 - d) Entokadura.
64. **Adreiluen neurriak hauei dagozkie:**
- a) Adreiluen ertzei.
 - b) Adreiluen gainazalei.
 - c) Adreiluen lodierei.
 - d) Zuzenak dira denak.
65. **Nola definituko genuke harmailua?**
- a) Altzairuzko erreminta, askotariko lanetan erabilia.
 - b) Kolpekatzeko erreminta, zenbait forma dituen, harria lantzeko erabilia.
 - c) Altzairuzko erreminta, kofratzaile-mailua ere deitua.
 - d) Altzairua urtzeko erreminta.
66. **Zer erabiltzen da eroale elektrikoak eroanbide elektrikoetako hodien barnean sartzeko?**
- a) Tiranteak.
 - b) Kableak pasatzeko gidaria.
 - c) Alanbre galvanizatua.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
67. **Zer tresna erabiltzen dute zurginek 45 eta 90 graduako angeluko ebaketak egiteko?**
- a) Inglete-kutxa.
 - b) Eskuzko zulagailua.
 - c) Trinket-birabarkia eta ginbaletak.
 - d) Aurrekoetako edozein zuzena izan daiteke.
68. **Adierazi zein den lizpaperean erabili beharreko granulometriarik egokiena zurezko pieza bat amaitzeko berniza eman baino lehen:**
- a) 100.
 - b) 250.
 - c) 600.
 - d) 1.000.
69. **Zurgintzan, kola artifiziala da hau:**
- a) Kaseinazko kola.
 - b) Gelatinazko kola.
 - c) Ureazko kola.
 - d) Kafeinazko kola.

70. **Zer panel fabrikatzen da zurezko zerrautsak erretxina sintetikoaz kolatuz?**
- a) Zuntzezko panela.
 - b) Aglomeratuzko panela.
 - c) Arima beteko panela.
 - d) Konglomeratuzko panela.
71. **Kobrezko hodiak beren osagarriekin lotzeko, soldadura biguna erabiltzen da. Haren temperatura egokia hau da, gutxi gorabehera:**
- a) 200 Celsius gradu.
 - b) 275 Celsius gradu.
 - c) 500 Celsius gradu.
 - d) 1.500 Celsius gradu.
72. **Bada garbiketako tresna bat, kirten batean sartutako kotoizko zorro batez osatua. Zer izen du?**
- a) Bustigailua.
 - b) Guantela.
 - c) Eskuila laua.
 - d) Esponja.
73. **Terrazo-zoru batean, honela garbituko dugu tinta-orban bat:**
- a) Bota ura eta lixiba proportzio berean (% 50), itxaron pixka bat eta garbitu urez.
 - b) Bota ura eta amoniakoa, itxaron pixka bat eta garbitu urez.
 - c) Bota ura eta lixiba, eta, jarraian, garbitu urez.
 - d) Ura eta detergentea erabiliz.
74. **PVCzko hodiak tako eta torloju bidez horman finkatzeko, hau erabiltzen da:**
- a) Xaflazko besarkagailua.
 - b) Tirafondoa.
 - c) Grapa eusleak.
 - d) Alanbrea.
75. **Zer hodi mota kurbatu daiteke hondar fin eta lehorrez beteta?**
- a) Altzairu galbanizatuzko hodia.
 - b) Berunezko hodia.
 - c) Plastikozko hodia.
 - d) Kobrezko hodia.
76. **Zorua garbitzeko eta kontserbatzeko argizariak ezaugarri hau izan behar du batez ere:**
- a) Tratatu beharreko gainazalaren kolore berekoa izan behar du.
 - b) Irristagaitza izan behar du.
 - c) Fungizida antiestatikoa izan behar du.
 - d) Zuzenak dira denak.

77. **Zer mailu mota erabiltzen da errementaritzan?**
- a) Mailu burubiribila.
 - b) Mailu horzduna.
 - c) Mazoa.
 - d) Zuzenak dira denak.
78. **Bada pintura mota bat oso porotsu eta iragazkorra, itxura matekoa, urarekiko erresistentziarik gabea eta gogortasun txikikoa. Zein da?**
- a) Kare-pintura.
 - b) Tenple-pintura.
 - c) Silikato-pintura.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
79. **Pinturan, zer da tirolesa?**
- a) Arrabol mota bat, oso akabera fin eta leuna ematen duena.
 - b) Bernizeak emateko brotxa berezi bat.
 - c) Pintura lodia jaurtitzen duen makina bat, akabera pikortsua eta irregularra ematen duena.
 - d) Espatula mota bat.
80. **Zertarako erabiltzen da, batez ere, kare-esnea?**
- a) Barnealdeko zurak margotzeko.
 - b) Paretak eta hormak margotzeko.
 - c) Burdineriak margotzeko.
 - d) Zoruak margotzeko.
81. **Nola disolbatzen dira silikato-pinturak?**
- a) Urarekin.
 - b) Disolbatzaile unibertsalarekin.
 - c) Agoarrasarekin.
 - d) Lixibarekin.
82. **Zein da sistemarik egokiena letoizko xafla bat soldatzeko?**
- a) Puntuzko soldadura.
 - b) Soldadura autogenoa.
 - c) Kanpo-material osagarri bidezko sutegiko soldadura.
 - d) Soldadura arrunta.
83. **Zer erabiltzen da zoruei distira emateko?**
- a) Xurgagailua.
 - b) Gamuza.
 - c) Leuntzeko makina.
 - d) Lanbasa.

84. **Nola izendatzen da eskobatzeko eta kedarra kentzeko balio duen tresna bat, kirten luze batean jartzen dena?**
- a) Erratz txikia.
 - b) Erratz handia.
 - c) Mopa.
 - d) Luma-eskuila.
85. **Hauetako zein da garbiketako tresna elektriko bat?**
- a) Monoeskuila.
 - b) Eskuila.
 - c) Erratz handia.
 - d) Garbiketa-orga.
86. **Zein da eskuila gogorren funtzio nagusia?**
- a) Arropako hautsa kentzea.
 - b) Zoruan sartutako elementu zikinak ateratzea.
 - c) Beirak harraskatzea.
 - d) Mahai-zapiak igurztea.
87. **Zer adierazten dute «S» esaldiek produktu baten bilgarriko etiketan?**
- a) Zuhurtzia-aholkuak.
 - b) Segurtasun-zenbakia.
 - c) Arrisku espezifikoak.
 - d) Arrisku-adierazpena.
88. **Giza osasunean duten efektuaren arabera, nolakoak izan daitezke produktuak?**
- a) Leherkorrak, erregarriak, sukoiak.
 - b) Kartzinogenoak, mutagenoak, ugalketarako toxikoak.
 - c) Oso toxikoak, kaltegarriak, toxikoak, korrosiboak, narritagarriak, sentsibilizatzaileak.
 - d) Ingurumenerako arriskutsuak.
89. **Non aurkituko dugu korrante zuzena?**
- a) Normalean, etxebizitzetan.
 - b) Piletan.
 - c) Lantegi txikietan.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
90. **Zer da hipokloritoa?**
- a) Leungarri bat.
 - b) Desinfektatzaile bat.
 - c) Detergente bat.
 - d) Kloro-erregulatzaile txiki bat.

91. **Nola egiten da eguneroko garbiketa parket bernizatuan?**
- a) Urarekin eta detergentearekin.
 - b) Urarekin, argizari likidoarekin eta mopa lehorrekin.
 - c) Xurgagailuarekin.
 - d) Lehenengo, xurgagailuarekin; gero, urarekin, lixibarekin eta mopa lehorrekin.
92. **Zein da kristaletako kare lehorra garbitzeko modurik egokiena?**
- a) Espartzu bustia.
 - b) Espartzu lehorra.
 - c) Espatula.
 - d) Edozein objektu zurrin, eraginkorra bada.
93. **Erreminta hauetatik, zeinek EZ du balio neurtzeko edo nibelatzeko?**
- a) Masa egiteko ontzia.
 - b) Erregela.
 - c) Burbuilazko nibela.
 - d) Flexometroa.
94. **Komunak garbitzean, hau hartu behar da kontuan:**
- a) Zikintasun txikienekotik zikintasun handienekora garbitzea, kutsadura saihesteko.
 - b) Produktu asko erabiltzea.
 - c) Zoruaz bakarrik arduratzea.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
95. **Zerez eginda daude lixatzeko tako normalak?**
- a) Metalez.
 - b) Zurez.
 - c) Aparrez.
 - d) Plastikoko gogorrez.
96. **Hiru hariko kable batean, zer adierazten du kolore marroiak?**
- a) Lurreko haria.
 - b) Faseko haria.
 - c) Hari neutroa.
 - d) Elektrizitatearen eroale nagusia.
97. **Zer da soldadura autogenoa?**
- a) Erresistentziazko soldadura.
 - b) Arkuzko soldadura.
 - c) Soldadura oxiazetilenikoa.
 - d) Soldadura hidrogeneizatua.

98. **Metal bat tenplatu ondoren, zer handitzen zaio?**
- a) Purua.
 - b) Elastikotasuna.
 - c) Harikortasuna.
 - d) a eta c erantzunak zuzenak dira.
99. **Gorputz hauetako zein da bero-eroalerik onena?**
- a) Kobrea.
 - b) Beruna.
 - c) Ikatza.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
100. **Itzalgailu hauetako zein erabiliko zenuke sute elektriko bat itzultzeko?**
- a) Hauts lehorrezkoa.
 - b) Itzalgailu hidrikoa.
 - c) Anhidrido karbonikoa.
 - d) Itzalgailu misto bat.
101. **Zer kolore du gas-hodiak?**
- a) Horia.
 - b) Berdea.
 - c) Urdina.
 - d) Gorria.
102. **Geletan, non kokatu ohi dira erradiadoreak?**
- a) Edozein tokitan, baina ez zorutik oso hurbil.
 - b) Ia beti leihoen azpian, kristal bikoitzekoak direnean izan ezik.
 - c) a eta b erantzunak ez dira zuzenak.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
103. **Zur-soberakina ebaki behar baduzu eta lodi samarra bada, erreminta hauetatik zein aukeratuko zenuke?**
- a) Eskoprea.
 - b) Trintxa.
 - c) Gubia.
 - d) Soldadura hidrogeneizatua.
104. **Sistema hauetako zeinekin lortzen da zuraren akaberarik finena?**
- a) Banda-lixagailua.
 - b) Zura akabatzeko hortza.
 - c) Ur-lizpapera.
 - d) Marruskadura arina.

105. **Zer ezaugarri berezi dute aglomeratuzko panel ignifugoeak?**
- a) Hezetasunarekiko erresistentzia handia izatea.
 - b) Iragazgaitzak izatea.
 - c) Suarekiko erresistenteak izatea.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
106. **Non edo nola egon behar dute sute- edo eztanda-arrisku nabarmena duten materialak?**
- a) Sute mota bakoitzerako egokiak diren itzalgailuetatik hurbil.
 - b) Gainerako materialetatik bereizita, edo instalazio edo eraikin isolatuetan gordeta.
 - c) Nahikoa da ohar bat jartzea material arriskutsua dela adierazteko.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
107. **Material hauetatik zein da eroale elektriko ona?**
- a) Bakelita.
 - b) Zilarra.
 - c) Portzelana.
 - d) Zur lehorra.
108. **Nola dago osatuta korronte elektrikoa?**
- a) Elektroi kopuru handi bat da.
 - b) Beren orbitatik erauzitako elektroi eta protoien kopuru handi bat da.
 - c) Neutroi kopuru handi bat da.
 - d) Beren orbitetatik zirkulatzen ari diren elektroien kopuru handi bat da.
109. **Mekanismo baten zokoetara edo bestela iristerik ez dugun lekuetara iristeko balio digute:**
- a) Sarbide lasterreko aliketak.
 - b) Kableak zuritzeko aliketak.
 - c) Aliketa puntazorrotzak.
 - d) Ebakitzeko aliketak.
110. **Amperemetroa neurri elektrikoetarako neurgailu bat da. Zer unitatetan neurtzen du?**
- a) Volt.
 - b) Amperea.
 - c) Wattetan.
 - d) Ohm.
111. **Zer jakin dezakegu polo-bilagailu bat erabilia?**
- a) Jakitea ea eroaleak korrontea duen.
 - b) Jakitea ea eroaleak tentsioa duen eta tentsio hori neurtzea.
 - c) Poloen erresistentzia besterik ezin du neurtu.
 - d) Intentsitatea besterik ezin du neurtu.

112. **Zeren unitatea da ohm-a?**

- a) Tentsioarena.
- b) Gogortasunetik.
- c) Erresistentziazetik.
- d) Maiztasunarena.

113. **Zer arlotako profesionalek erabiltzen dute txalota?**

- a) Zurginek.
- b) Igeltseroek.
- c) Ebanistek.
- d) Margotzaileek.

114. **Zer erreminta erabiliko dugu bistako adreilua ezartzean geratzen diren junturetan morteroa jartzeko?**

- a) Brotxa.
- b) Paleta.
- c) Paleta txikia.
- d) Espatula.

115. **Zer abiadura EZ du gainditu behar dumperrak obran?**

- a) 20 km/h.
- b) 35 km/h.
- c) 40 km/h.
- d) 60 km/h.

116. **Noiz garbitu behar da hormigoi-makina?**

- a) Eguneko lanaldia amaitzean.
- b) Bi egunez behin.
- c) Astean behin.
- d) Ez da behar.

117. **Hormigoi-makinako nahastea likidoegia geratu bada dosifikatu ondoren, zer egin behar da?**

- a) Ur gehiago erantsi.
- b) Ura kendu.
- c) Osagaien proportzio berri bat erantsi, erabiltzeko nahaste optimoa lortu arte.
- d) Ez du konponbiderik, berriro egin behar da.

118. **Zer izen dute lodiera txikiko adreiluek?**

- a) Trenkadakoa.
- b) Azta-erdiko pareta.
- c) Adreilu mehea.
- d) Arrastela.

119. **Zer izen du uraren, zementuaren eta hondarraren nahasteak?**
- a) Hormigoia.
 - b) Aurreatezatuetarako pasta.
 - c) Morteroa.
 - d) Iztukua.
120. **Berniza, akaberaren arabera, nolakoa izan daiteke?**
- a) Distiratsua.
 - b) Satinatua.
 - c) Matea.
 - d) Hiru motetakoa.
121. **Zer da kofratua?**
- a) Eskora bat.
 - b) Aldamio baten parte bat.
 - c) Kutxatila bat.
 - d) Molde bat.
122. **Adreilu hutseko pareta batean erreten bat egin behar badugu, erreminta hauetako zein erabiliko dugu?**
- a) Hotzeko zizela eta mazoa.
 - b) Hotzeko zizela eta igeltsero-mailua.
 - c) Mailua eta trintxa.
 - d) Igeltsero-mailua eta trintxa.
123. **Lehen, iturgintza-lanetan, kalamua jartzen zen pieza hariztatuetako harien inguruan. Gaur egun, zer erabiltzen da haren orde?**
- a) Karrozari-zinta.
 - b) Tefloi-zinta.
 - c) Zinta isolatzailea.
 - d) PVCzko zinta.
124. **Hodi hauetatik zein da beroarekiko, presioarekiko eta oxidazioarekiko erresistentea?**
- a) Burdinak.
 - b) PVCzkoa.
 - c) Berunezkoa.
 - d) Kobrezkoa.
125. **Adierazi erreminta hauetako zeinek hartzen duen pintura kantitaterik handiena?**
- a) Pintzela.
 - b) Brotxa.
 - c) Paleta txikia.
 - d) Arrabola.

126. **Aliketa hauetako zeinek balio du zenbait funtziotarako?**
- a) Ebakitzeko aliketak.
 - b) Aliketa orokorrak.
 - c) Punta-aliketak.
 - d) Punta konbinatuko aliketak.
127. **Igeltseroak azpila eskatzen duenean, zer eskatzen du?**
- a) Masa egiteko ontzia.
 - b) Talotxa.
 - c) Burbuilazko nibela.
 - d) Beruna.
128. **Zer galarazten du urak sifoietan?**
- a) Hondakin solidoak igarotzea.
 - b) Usain txarrak.
 - c) Ezer ez.
 - d) Ahari-kolpea.
129. **Zer elementuk babesten ditu zirkuituak gainkargetatik?**
- a) Etengailu automatiko txikiak.
 - b) Erlatibizatzaileak.
 - c) Etengailu diferentzialak.
 - d) Kontaktoreak.
130. **Hodi hauetako zein dago debekatuta ura eramateko?**
- a) Kobrea.
 - b) Altzairu herdoilgaitzezkoa.
 - c) Berunezkoa.
 - d) PVCzkoa.
131. **Hau da kargak eskuz manipulatzeari maizenik gertatzen EZ den lesioetako bat:**
- a) Lunbagoa.
 - b) Zauriak.
 - c) Diskoko herniak.
 - d) Gastritisa.
132. **Hau da posiziorik egokiena karga manipulatzeko:**
- a) Gorputzetik bereiz, ukondoen eta sorbalden arteko altueran.
 - b) Gorputzari atxikia, belauenen eta eskuen arteko altueran.
 - c) Gorputzari atxikia, ukondoen eta hatz koskorren arteko altueran.
 - d) Gorputzari atxikia, buruaren eta sorbalden arteko altueran.

133. **Tentsio elektrikoa dagoenean:**

- a) Agente itzaltzaile gisa onargarria da ur-zorrotada.
- b) Agente itzaltzaile gisa onargarria da aparra.
- c) Saiakuntza dielektriko normalizatua gainditzen duten itzalgailuek dauzkaten agenteak erabili ahal izango dira.
- d) Zuzenak dira aurreko erantzun guztiak.

134. **Hodi fluoreszente bat pizten ez denean eta argi gorritzat bat agertzen denean haren muturretan:**

- a) Erreaktantiak huts egin du.
- b) Instalazioko magnetotermikoak huts egin du.
- c) Piztarazgailuak huts egin du.
- d) Etengailuak huts egin du.

135. **Diferentziala:**

- a) Ez du babesten eroaleen isolamenduan akatsik baldin badago.
- b) Akats-intentsitateak detektatzen ditu.
- c) Zirkuitulaburretatik babesteko balio du.
- d) Zuzenak dira denak.

136. **Argiketariaren aliketak:**

- a) Heldulekua material isolatzailez estalia dute.
- b) Punta laua izan behar dute.
- c) Elektrizitatearen eroale izan behar dute.
- d) Hiru mota daude.

137. **Bihurkin polo-bilatzailearekin eroale bat ukitzen dugunean:**

- a) Bonbilla pizten da eroale neutroa ukitzean.
- b) Bonbilla pizten da lurreko eroalea ukitzean.
- c) Bonbilla pizten da faseko eroalea ukitzean.
- d) Bonbilla pizten da soilik baldin eta eroale horretan hargailu bat konektatuta bada-go.

138. **Zer da lotura bat?**

- a) Konexio mota bat, non korrante-hargune berri bat lortzen baita lehendik dagoen linea batetik abiatuta.
- b) Eroale baten bi tarteren artean egindako konexio bat.
- c) Puntu berean hiru kable edo gehiago lotzea.
- d) Edozein aparatu elektrikoren borne batean hiru kable lotzea.

139. **Pertsona bat iturri elektriko batekin kontaktuan dagoenean:**

- a) Lehenbailehen askatu behar dugu; horretarako, sendo heldu behar diogu eta tira egin.
- b) Hornidura elektrikoa berehalaxe eten behar dugu.
- c) Ezin bada eten hornidura, askatu egin behar dugu edozein gauza erabiliz.
- d) Diferentzialak eragin arte itxaron behar dugu pertsona hori artatu ahal izateko.

140. **Jendea ibiltzen den lokaletan:**

- a) Argi fluoreszenteak erabili behar dira larrialdietako argiekin batera.
- b) Larrialdietako argiak instalatu behar dira.
- c) Bateria batez elikatutako lanpara halogenoak erabili behar dira.
- d) Larrialdietako argiak instalatu behar dira bakarrik beharrezkoa bada.

141. **Karea pintura bat da, eta honetan disolbatzen da:**

- a) Erretxina.
- b) Kaseina.
- c) Agoarrasa.
- d) Ura.

142. **Tinduak disolbagarriak dira:**

- a) Uretan.
- b) Beren ezaugarrien arabera.
- c) Disolbatzaile guztiekin.
- d) Denak disolbatzen dira kaseinatan.

143. **Zertarako balio du zurda metalikozko eskuilak?**

- a) Zurda horiek egokiak dira paramentuak garbitzeko.
- b) Pintura soltea karrakatzeko balio du gainazalak saneatzean.
- c) Zurda horiek paramentuak urez garbitzeko erabiltzen dira.
- d) Euskarrien gainean oso pasta lodia aplikatzeko balio du.

144. **Zertarako balio du konpresoreak?**

- a) Aire konprimatua fabrikatzeko eta gordetzeko.
- b) Gainazal handiak margotzeko eta pintura barreiatzeko.
- c) Tailerretan erabiltzen da, automobilak, ateak eta abar margotzeko eta bernizatzeke.
- d) Euskarri prestatuen gainean partikulak lehorrean jaurtitzeko.

145. **Zein da igeltsuaren erabilera nagusia eraikuntzan?**

- a) Aire zabalean erresistentzia ona duenez, fatxadak emokatzeko erabiltzen da.
- b) Batez ere aglutinatzaile gisa erabiltzen da fabrikazioan.
- c) Igeltsua laguntza-materiala da trenkaden fabrikazioan.
- d) Batez ere barnealdeetan erabiltzen da, urarekiko sentikortasun handia duelako.

146. **Zeren unitatea da metro kubikoa?**
- a) Edukierarena.
 - b) Azalerarena.
 - c) Luzerarena.
 - d) Bolumenarena.
147. **Zer izen du metalek hautsi gabe deformatzeko, oso hari finak sortzeko, duten ahalmenak?**
- a) Xaflagarritasuna.
 - b) Zailtasuna.
 - c) Errresistibitatea.
 - d) Harikortasuna.
148. **Zer izen dute pikatu berezia duten karraskek?**
- a) Karraska bereziak.
 - b) Arraspak.
 - c) Karraskatzarrak.
 - d) Erlojugile-karraskak.
149. **Zer neurtzeko erabiltzen da kalibrea?**
- a) Kanpoaldeak bakarrik.
 - b) Kanpoaldeak eta barrualdeak.
 - c) Kanpoaldeak, barrualdeak eta sakonerak.
 - d) 250 mm azpiko luzerak.
150. **Hari baten diametro izendatua hau da beti:**
- a) Torlojuaren barne-diametroa.
 - b) Torlojuaren kanpo-diametroa.
 - c) Azkoinaren kanpo-diametroa.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
151. **Zertarako erabiltzen dira hariztatzeko ardatzak?**
- a) Torlojuak eta azkoinak hariztatzeko.
 - b) Torlojuak hariztatzeko bakarrik.
 - c) Azkoinak hariztatzeko bakarrik.
 - d) Hodiak hariztatzeko.
152. **Soldadura elektrikoaren ekipamenduan transformadore bat dago. Zertarako?**
- a) Sareko tentsioa jaisteko.
 - b) Irteerako tentsioa handitzeko masako kablean.
 - c) Elektrodoa urtzeko.
 - d) Behar den tenperatura emateko.

153. **Sopletearenugarra erregulatu egin behar da, azetilenorearen eta oxigenorearen proportzio egokia lortu arte. Zer esango dugu orduan?**
- a) Sugarra oxidatzailea da.
 - b) Sugarra erreduzitzailea da.
 - c) Sugarra argitsua da.
 - d) Sugarra neutroa da.
154. **Burdinazko barauts batekin, zuloak egin ahal izango dira material honetan:**
- a) Burdinazko piezak.
 - b) Horma.
 - c) Burdina eta zura.
 - d) Edozein gainazal.
155. **Zer da zainak margotzekoa?**
- a) Lanbide bat.
 - b) Desugertzeko produktu bat.
 - c) Erreminta bat.
 - d) Bernizatzeeko produktu bat.
156. **Nola biltegitatu ohi dira panel manufakturatuenak?**
- a) Horizontalean, bi arrastelen gainean.
 - b) Zutik, hezetasunetik bereizita.
 - c) Bata bestearen gainean.
 - d) Berdin dio.
157. **Zer argiteria mota erabili ohi da zurgintza-lantegietan?**
- a) Goritasun-lanparak.
 - b) Kontsumo txikiko lanparak.
 - c) Neonezko lanparak.
 - d) Lanpara fluoreszenteak.
158. **Non muntatuko genuke buru karratuko barauts bat?**
- a) Birabarki batean.
 - b) Bateriadun zulagailu batean.
 - c) Eskuzko zulagailu batean.
 - d) Zulagailu elektriko batean.
159. **Zertarako erabiltzen da ginbaleta?**
- a) Zulo txikiak egiteko.
 - b) Zura zulatzeko.
 - c) Zurezko piezetan hariari hasiera emateko.
 - d) Torlojuz estutzeko.

160. **Zertarako erabili ohi da eskoprea?**
- a) Zur bigunak artekatzeko.
 - b) Zur gogorrak artekatzeko.
 - c) Zura kentzeko trintxa iristen ez den izkinetan.
 - d) Artekak egiteko.
161. **Zer egin behar da zurezko listoi baten luzera handitzeko?**
- a) Mihiztadura bat.
 - b) Lotura bat.
 - c) Akoplamendu bat.
 - d) Zuzenak dira denak.
162. **Txirbila harrotu gabe hodian eta piezen kalibrea aldatzeko tresnak dira:**
- a) Karrakak.
 - b) Arraspak.
 - c) Otxabuak.
 - d) Mandrilak.
163. **Hodiak eta osagarriak hariztatze tresnak dira:**
- a) Aliketa orokorra.
 - b) Aliketa puntazorrotza.
 - c) Iturgile-tripodea.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
164. **Zertarako erabiltzen dira igeltsero-aitzurak?**
- a) Nahasteak aplikatzeko.
 - b) Erretenak egiteko.
 - c) Zuloak egiteko.
 - d) Lur bigunetan induskatzeko.
165. **Ahohanditu hitzaren sinonimoa hau da:**
- a) Higatu.
 - b) Ahozabaldur.
 - c) Lotu.
 - d) Elkartu.
166. **Berunezko hodiekin:**
- a) Arazoak ematen dituzte ur hotza garraiatzen dutenean, eta gerta daiteke ur hori giza kontsumorako kaltegarria izatea.
 - b) Ez dute aldaketarik izaten agente atmosferikoen eraginez.
 - c) Karearekin kontaktuan jar daitezke, baina ez zementuarekin.
 - d) Zementuarekin kontaktuan jar daitezke, baina ez karearekin.

167. **Sare pribatuaren urak husteko sistemak honelakoak izan daitezke:**

- a) Unitarioak.
- b) Bereiziak.
- c) Pseudobereiziak.
- d) Lehenengoa eta bigarrena, a) eta b), zuzenak dira.

168. **Elementu hauek osatzen dute banaketa-sarea:**

- a) Hargunea, hargune-giltza, erregistro-giltza eta biratze-giltza.
- b) Harguneak, hargune-giltzak, biratze-giltzak eta ixteko giltzak.
- c) Harguneak, hargune-giltzak, biratze-giltzak eta blokeo-giltzak.
- d) Harguneak, hargune-giltzak, erregistro-giltzak eta ixteko giltzak.

169. **Azuleju-estalduretan erabiltzeko mortero bat egiteko, hau nahasiko genuke:**

- a) Sei parte hondar, parte bat kare eta parte bat zementu.
- b) Lau parte hartxintzar, hiru parte hondar eta parte bat zementu.
- c) Sei parte hondar eta parte bat zementu.
- d) Parte bat hondar, parte bat kare eta parte bat zementu.

170. **Zer da hormigoia pikatzea?**

- a) Hormigoia zanpatuz trinkotzea.
- b) Gutxienez 7 egunez ureztatzea.
- c) Zorua pikatzea ondo itsats dadin.
- d) Trinkotzea, hormigoian hagaxka bat sartuz.

171. **Zer izen du adreilu baten ertz nagusiak?**

- a) Ertza.
- b) Taula.
- c) Zeharaldea.
- d) Luzealdea

172. **Zein dira material erregogorak?**

- a) Eguzki izpiak errefraktatzen dituztenak.
- b) Suarekiko oso erresistentzia handia duen esmalte-geruza bat dutenak.
- c) Oso gogorak direnez beste material batzuk ebaki, leundu edo higatzeko erabiltzen direnak.
- d) Tenperatura altuak jasateko prestatuta daudenak.

173. **Zanga bat ireki behar badugu, zer erabiliko dugu?**

- a) Pikotxa eta pala.
- b) Alperra.
- c) Alperra eta pala.
- d) Pikota.

174. **Lur soltea edo hareatsua duen lurzoru batean hondeaketa bat eskuz egin behar bada, zer erreminta erabiliko dugu?**
- a) Pikotxa eta pala.
 - b) Pala bakarrik.
 - c) Hondeaitzurra besterik ez da behar.
 - d) Pikotxa eta hondeaitzurra.
175. **Zer dira zangoak?**
- a) Zerrenda apaingarri mota bat.
 - b) Arkuaren pieza bat.
 - c) Leihoaren edo atearen zuloaren parte bat.
 - d) Ganga baten parte bat.
176. **Azuleju- eta lauza-estalduretako zementu-esnean:**
- a) Albo-junturetako zementu-soberakina kenduko dugu.
 - b) Albo-junturetako zementu-soberakina kenduko dugu, eta zotz bat pasatuko dugu.
 - c) Espartzu batekin garbituko dugu, besterik gabe.
 - d) Belaki lehor batekin garbituko dugu.
177. **Noren jarduera da zolatze-lana?**
- a) Zurginarena.
 - b) Iturgilearena.
 - c) Argiketariarena.
 - d) Igeltseroarena.
178. **Koloreak segurtasun-seinaleen parte dira. Zer adierazten du kolore horiak edo hori laranjak?**
- a) Debeku-seinalea.
 - b) Betebehar-seinalea.
 - c) Ohartarazpen-seinalea.
 - d) Salbamendu- edo laguntza-seinalea.
179. **1492/1993 Errege Dekretuaren arabera, zein da itzalgailu baten bizitza baliagarria?**
- a) 20 urte.
 - b) 10 urtean behin.
 - c) 25 urtean behin.
 - d) 30 urte.
180. **Bide-zoru hauetako zein hartzen da zurruntzat?**
- a) Mundruna.
 - b) Hormigoia.
 - c) Asfaltoa.
 - d) Zoladura.

181. **Erreminta hauetako zein da erabiliena hormigoiriari akabera emateko?**
- a) Paletina.
 - b) Espatula.
 - c) Plaunkaia.
 - d) Txalota.
182. **Hormigoizko zolagainetan, zer izen du ondoz ondoko lauzen arteko ezarrerek?**
- a) Juntura.
 - b) Zolagaina.
 - c) Oinarri-azpia.
 - d) Oinarri-azpi drainatzailea.
183. **Arrabolarekin margotzeko, zein da arrabolik egokiena horma leunetarako?**
- a) Artilezko arrabola.
 - b) Arrabol sintetikoa.
 - c) Apar plastikozko arrabol sintetikoa.
 - d) Ehunezko arrabola.
184. **Zisternaren mekanismoan, zer elementuk kontrolatzen du ur-sarrera?**
- a) Gontz-balbula.
 - b) Flotagailua.
 - c) Sifoia.
 - d) Konexio-hagaxka.
185. **Zenbat argi birakari izan behar dituzte obra eta zerbitzuetarako ibilgailu bereziek?**
- a) Argi bakar bat, automobil-hori kolorekoa.
 - b) Kolore gorriko argi bat edo bi.
 - c) Kolore zuriko edo hori selektiboko argi bat.
 - d) Bi argi gorri gutxienez, eta beti kopuru bikoititan.
186. **Zer lan-motatan erabiltzen da dumperra?**
- a) Hondakinen eta materialen garraioa.
 - b) Trinkotzea eta berdintzea.
 - c) Morteroak eta hormigoiak lortzea.
 - d) Hondeatze-lanak eta lurrak kargatzea.
187. **Zer maiztasunekin sakatu behar da etengailu diferentzialaren probako sakagailua, ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko?**
- a) 6 hilean behin.
 - b) Hilean behin.
 - c) 3 hilean behin.
 - d) Urtean behin.

188. **Zentro publikoetan, zenbatean behin ikuskatu behar ditu itzalgailuak enpresa baimendu batek?**
- a) Urtean behin.
 - b) Bi urtean behin.
 - c) 6 hilean behin.
 - d) 5 urte.
189. **Sarrailetan, nondik sartu behar da olio lubrifikatzailea?**
- a) Kisketatik eta begitik.
 - b) Kisketatik eta palankatxotik.
 - c) Kisketatik eta malgukitik.
 - d) Palankatxotik eta begitik.
190. **Instalazio elektriko batean diferentzialak salto egiten badu, zer matxura mota gertatzen ari da?**
- a) Gainkontsumoa.
 - b) Zirkuitulaburra.
 - c) Deribazioa.
 - d) Argi-etendura.
191. **Zentro publikoetan, zer maiztasunarekin berritu behar zaie tinbrea instalazio bateko itzalgailuei?**
- a) Urtero.
 - b) Bi urtean behin.
 - c) Hiru urtean behin.
 - d) Bost urtean behin.
192. **Eraikin publikoetan, 842/2002 Errege Dekretuaren arabera, zer maiztasunarekin egin behar da behe-tentsioko ikuskapena?**
- a) Bost urtean behin.
 - b) Urtero.
 - c) Bi urtean behin.
 - d) Hiru urtean behin.
193. **Hodi fluoreszente batek zarata egiten duenean:**
- a) Piztarazgailua akastuna da.
 - b) Hodia agortzen ari dela adierazten du.
 - c) Erreaktantzian konexio akastun bat dago.
 - d) Hodiaren eta borneen arteko kontaktua egokia da.

194. **Galtzada batean obra bukatu ondoren, beste zona batzuk ere garbitu behar dira.**
- a) Jabari-zonak bakarrik.
 - b) Jabari- eta zortasun-zonak bakarrik.
 - c) Galtzadak baino ez dira garbitzen.
 - d) Jabari- eta zortasun-zonak eta erabilitako lurrak garbitzen dira.
195. **Goi-presioko sodio-lurrunezko lanpara baten multzoak osagai hauek ditu:**
- a) Lanpara, autotransformadorea eta kondentsadorea.
 - b) Lanpara, erreaktantzia eta kondentsadorea.
 - b) Lanpara, piztarazgailua, erreaktantzia eta kondentsadorea.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
196. **Zertarako erabiltzen da gubila?**
- a) Azalera txikiko gainazalak margotzeko.
 - b) Torlojuak angeluan estutzeko.
 - c) Metalak ebakitzeko.
 - d) Plastikoa urtzeko.
197. **Lan-arriskuen Prebentziorako Legearen arabera, zer da laneko ekipamendua?**
- a) Langilearen segurtasunerako eta osasunerako arriskua sortzeko eragin adierazgarria izan dezakeen lanaren edozein ezaugarri.
 - b) Lanean ari den bitartean langilearen segurtasunerako edo osasunerako mehatxu izan daite(z)keen arrisku(etat)tik babesteko langileak eramatekoa den ekipamendua eta horretarako den edozein osagarri.
 - c) Lanean erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.
 - d) Norbera babesteko ekipamendua (NBE)
198. **Behe Tentsioko Arautegi Elektroteknikoan xedatutakoaren arabera, zein da onartutako gehieneko segurtasun-tentsioa?**
- a) 24 V lokal edo kokaleku hezeetarako, eta 50 V lokal edo kokaleku lehorretarako.
 - b) 12 V lokal edo kokaleku hezeetarako, eta 24 V lokal edo kokaleku lehorretarako.
 - c) 6 V lokal edo kokaleku hezeetarako, eta 12 V lokal edo kokaleku lehorretarako.
 - d) 240 V lokal edo kokaleku hezeetarako, eta 500 V lokal edo kokaleku lehorretarako.
199. **Erreminta hauetako zein erabiltzen da igeltserotzan euste-elementu gisa?**
- a) Talotxa.
 - b) Sarjenta.
 - c) Zizaila.
 - d) Paleta.

200. **Kausa ezezagunek eraginda, sute bat gertatu da eraikin baten barneko koadro elektriko batean. Aukera hauetako zein da egokiena sutea itzaltzeko?**
- a) CO₂-zko itzalgailua.
 - b) ABC hauts lehorrezko itzalgailua.
 - c) Ur-mahuka.
 - d) Goi-tentsioko itzalgailua.
201. **Mekanismo hauetako zeinek babesten du instalazio elektrikoa isolamendu-akatsetatik?**
- a) Konexio-blokea.
 - b) Etengailu orokorra.
 - c) Etengailu diferentziala.
 - d) Etengailu indiferentziala.
202. **Txorrota ixten dugunean, plastikozko zirrindola erdizurrun batek balbula gisa jokatzzen du, eta eten egiten du uraren bidea. Zer izen du zirrindola horrek?**
- a) Juntura torikoa.
 - b) Grower juntura.
 - c) Zapata.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
203. **Zer da «lan-arriskua» lan-segurtasunaren arloan?**
- a) Lanik gabe gelditzeko posibilitatea.
 - b) Lanean kalteren bat jasateko posibilitatea.
 - c) Lanean onurarik ez izateko posibilitatea.
 - d) Aurreko guztiak.
204. **Disko-makina baten diskoa aldatzean, zein da segurtasun-neurri nagusia?**
- a) Segurtasun-betaurrekoak janztea.
 - b) Lankide bati jakinaraztea.
 - c) Makina saretik deskonektatzea.
 - d) Segurtasun-eskularruak janztea.
205. **Hauek dira hodiak ebakitzeko erreminta nagusiak:**
- a) Tolesgailuak eta kurbagailuak.
 - b) Zerrak eta hodi-ebakigailuak.
 - c) Sopleteak eta gasista-lanparak.
 - d) Puntzoiak eta egozkailuak.
206. **Zertarako erabiltzen da plaunkaia?**
- a) Iltatzeko.
 - b) Zulatzeko.
 - c) Luzitzeko edo berdintzeko.
 - d) Hormigoi dardaratuzko blokeak ebakitzeko.

207. **Zer eroaletarako erabiltzen da kable berde-horia?**
- a) Neutrorako.
 - b) Babes- edo lur-eroalerako.
 - c) Fase-eroalerako.
 - d) Aurrekoetako edozeinetarako.
208. **Zein dira defentsa-mekanismoak arrisku elektriko batean zeharkako kontaktuak saihesteko?**
- a) Material eroaleak erabiltzea.
 - b) Etengailu diferentziala izatea eta instalazioa lurrera konektatzea.
 - c) Tentsiopeko ataletara iristeko modua izatea, haien gaineko kontrol handiagoa izateko.
 - d) Informazio-kartelak jartzea.
209. **Zertarako da beharrezkoa ur-banaketako sarearen sistema orokorra aldeztu aurretik ezagutzea?**
- a) Edozein konponketa egin ahal izateko.
 - b) Iturgintzako instalazioen mantentze-lanak egiteko.
 - c) Aurreko biak.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.
210. **Zer materialetako hodiak erabiltzen dira normalean hustubide-sarean?**
- a) Altzairua.
 - b) Kobrea.
 - c) PVC plastikoa.
 - d) Erantzun horietako edozein zuzena da.
211. **Zer izen du gainazal bertikal bat azulejuz estaltzeko eragiketak?**
- a) Emokatzeta.
 - b) Azuleju-jartzea.
 - c) Azulejurtzea.
 - d) Beiratzatzea.
212. **Prebentzio Legean, lan-baldintzak:**
- a) Laugarren artikuluan, definizioei buruzkoan, jasota daude.
 - b) Modu subliminalean jasota daude.
 - c) Langileen betebehartza hartzen dira.
 - d) Ez dago halakorik.
213. **Lan-baldintzek hau erabiltzen dute prebentzio-teknika gisa:**
- a) Laneko segurtasuna.
 - b) Ergonomia eta psikologia.
 - c) Laneko segurtasuna, higiene industriala, lan-medikuntza, ergonomia eta psikologia.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.

214. **Zer da arriskubide bat?**

- a) Arrisku larri bat.
- b) Arrisku larri eta berehalako bat.
- c) Langileen segurtasunerako eta osasunerako kaltegarria izateko ahalmena duen iturri edo egoera bat.
- d) Zauri bat.

215. **Arrisku kontzeptuak esan nahi du:**

- a) Ondorioak izatea.
- b) Ondoriorik ez izatea inoiz.
- c) Probabilitate kontzeptua elkartua izatea.
- d) Zerbait saihestezina.

216. **Zer da prebentzioa?**

- a) Lanetik eratorritako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko enpresako jarduera fase guztietan hartutako edo hartzea aurreikusitako neurrien edo jardueren multzoa.
- b) Lanetik eratorritako arriskuen ondorioak saihesteko edo gutxitzeko enpresaburuak egindako jarduerak.
- c) Arriskuen ondorioak edo probabilitatea saihesteko enpresako jarduera fase guztietan hartutako edo hartzea aurreikusitako neurrien edo jardueren multzoa.
- d) Denak faltsuak dira.

217. **Zer teknika mota dira babes-teknikak?**

- a) Arriskueta eragiten dutenak.
- b) Arriskuak gauzatzearen ondorioak murrizten edo ezabatzen dituztenak.
- c) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.
- d) Arriskuak gauzatzearen ondorioak handitzen edo batzen dituztenak.

218. **Noiz erabili behar dira babes-teknikak?**

- a) Prebentzio-teknikak aplikatu ezin direnean edo nahikoa ez direnean.
- b) Prebentzio-teknikak babes-teknikak baino garestiagoak direnean.
- c) Erosoagotzat hartzen direnean.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

219. **Zertarako balio du marrazki baten ikuspegi lagungarri batek?**

- a) Plano bat zehaztasunez marrazteko.
- b) Plano bat bereizmenarekin ikusteko.
- c) Irudikatutako gorputza hobeto ulertu ahal izateko.
- d) a eta b erantzunak zuzenak dira.

220. **Zer kontrolatzeko erabiltzen da manometroa?**
- a) Hiru bideko balbula bat kontrolatzeko.
 - b) Elektrobalbula bat kontrolatzeko.
 - c) Ez du ezer kontrolatzen, neurtu besterik ez du egiten.
 - d) Deskarga-abiadura kontrolatzeko.
221. **Zein da tornuzila kontserbatzeko metodorik onena?**
- a) Lan-barailak maiz karrakatzea.
 - b) Estutzeko palanka kolpekatzea sendotasun handiagoa lortzeko.
 - c) Tornuzilean eutsitako piezak kolpekatu behar direnean, parte finkoaren noranzkoan kolpekatzea beti.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
222. **Alarma-sakagailuak kokatzeko, kontuan izan behar da edozein puntutatik sakagailuraino dagoen distantziak ez duela izan behar hau baino handiagoa:**
- a) 30 metro.
 - b) 25 metro
 - c) 15 metro
 - d) 50 metro
223. **Gutxienez zer altuera izan behar dute barandek erortzeko arriskua saihesteko?**
- a) 100 cm.
 - b) 90 cm.
 - c) 95 cm.
 - d) 900 cm.
224. **Eraikin batean, zein da eroanbide elektrikoen eta gainerakoen arteko gutxieneko distantzia?**
- a) 5 cm-tik gorakoa.
 - b) Ez 3 cm baino txikiagoa.
 - c) 10 cm urezkoak badira.
 - b) Ez 10 cm baino txikiagoa.
225. **Etxebizitzetan, zergatik galtzen du karga (presioa) instalazioak?**
- a) Marruskaduragatik.
 - b) Instalaturako tresna osagarriengatik.
 - c) a eta b erantzunak zuzenak dira.
 - d) a eta b erantzunak ez dira zuzenak.
226. **Zer da beroa ezabatuz tenperatura 15° C-tik gora mantentzeko instalazio bat?**
- a) Hozte-sistema bat.
 - b) Berokuntza-sistema bat.
 - c) Aire girotuko sistema bat.
 - d) Alerta-sistema bat.

227. **Zerra-orri baten ezaugarri nagusiak hauek dira:**
- a) Tamaina, hortzen antolaera eta materiala.
 - b) Tamaina, hortzen antolaera, entrama eta ebaketa-gradua.
 - a) Tamaina, hortzen antolaera, ebaketa-gradua eta materiala.
 - d) Zerra-hortza ez da ebaketa-erreminta bat.
228. **Zer neurri estandar ditu A3 izeneko formatuan dagoen plano batek?**
- a) 210 × 297 mm.
 - b) 297 × 420 mm.
 - c) 148 × 210 mm.
 - d) Ez dago A3 izeneko formaturik.
229. **Zer galga mota erabili behar da hari-neurria eta hari-profila identifikatzeko?**
- a) Lodiera-galga.
 - b) Angelu-galga.
 - c) Orrazi-galga.
 - d) Zuzenak dira denak.
230. **Burdinurtu grisezko pieza bat zulatzeke, hau erabili behar da pieza hozteko?**
- a) Olio lubrifikatzailea.
 - b) Ebaketa-likidoa.
 - c) Presiozko aire-zorrotada.
 - d) Presiozko ur-zorrotada.
231. **Zer erabili behar da hodi bati bizarra kentzeko?**
- a) Barautsa.
 - b) Mandrila.
 - c) Egozkailua.
 - d) Trintxa.
232. **Zein da modurik egokiena burdinazko hodi bat kobrezko batekin lotzeko eta azkar hondatzea saihesteko?**
- a) Soldadura gogorra erabiltzea.
 - b) Soldadura biguna erabiltzea.
 - c) Zorro elektrolitiko bat erabiltzea.
 - d) Soldadura ertaina erabiltzea.
233. **Eterra zer da?**
- a) Neutralizatzailea.
 - b) Detergentea.
 - c) Disolbatzailea.
 - d) Likorea.

234. **Kobrezko hodian lotura azkar bat egiteko, zer erabiliko dugu?**
- a) Autogenoa.
 - b) Gripp junturak.
 - c) Soldadura biguna.
 - d) Zuzenak dira denak.
235. **Zertarako balio du anodoak ur-berogailu elektriko baten ontzian?**
- a) Ontzia babesteko.
 - b) Korrontea hartzeko.
 - c) Ur beroa ateratzeko.
 - d) Ur hotza ateratzeko.
236. **Zer erabiltzen da zulatzeko berrapuntu bat markatzeko?**
- a) Egozkailua.
 - b) Granetea.
 - c) Zizela.
 - d) Aldamia.
237. **Barauts baten kirtenean HSS sigla baldin badago, zer altzairu mota da?**
- a) Eskuzko erremintetarako altzairua.
 - b) Ebaketa erdilasterreko altzairua.
 - c) Abiadura handiko altzairua.
 - d) Altzairu erdizurrana.
238. **Non kontsultatuko duzu etxebizitzetako instalazio elektrikoei dagozkien arauak?**
- a) Behe-tentsioko arautegi elektroteknikoan.
 - b) Instalazio elektroteknikoen arautegian.
 - c) Etxebizitzak elektrifikatzeko arautegian.
 - d) Goi-tentsioko arautegi elektroteknikoan.
239. **Iturgintzan, zertarako erabiltzen dira zorroak?**
- a) Hodi baten helbidea aldatzeko.
 - b) Bi osagarri eme elkarrekin lotzeko.
 - c) Hodi bat une batez ixteko.
 - d) Bi osagai ar-eme elkarrekin lotzeko.
240. **Ur beroko instalazio batean altzairuzko hodi bat kobrezko batekin lotu nahi da zorro baten bidez. Zer material izango da egokia zorrarako?**
- a) Kobrea.
 - b) Letoia.
 - c) Poliamida.
 - d) Diamantea.

241. **Ahal dela, non kokatu behar da espantsio-ontzia berokuntza-zirkuitu batean?**
- a) Joaneko kolektorean, zirkulazio-ponparen xurgatze-aldean.
 - b) Itzulerako kolektorean, zirkulazio-ponparen xurgatze-aldean.
 - c) Joaneko kolektorean, zirkulazio-ponparen bulkatze-aldean.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
242. **Ura hornitzeko barne-instalazioetarako oinarritzko arauen arabera, non ipini behar da eraikin bateko hargune-hodiaren atzeraezeko balbula?**
- a) Kontagailuaren eta irteerako giltzaren artean.
 - b) Ixteko giltzaren ondoren.
 - c) Ixteko giltzaren eta erregistro-giltzaren artean.
 - d) Zoladuraren azpian.
243. **Hodi batean fluxu likidoak atzera egitea saihesteko, zer erabiltzen da?**
- a) Etete-balbula.
 - b) Segurtasun-balbula.
 - c) Atzeraezeko balbula bat.
 - d) Espantsio-balbula.
244. **Iturgintzan, zer da «ahari-kolpea»?**
- a) Urak zorrotatik irtetea duen abiadura.
 - b) Hodietan sortzen den dardara.
 - c) Hodiak jasaten duen korrosioa.
 - d) Soldadurak askatzen duen beroa.
245. **Zein da pintura guztien ezaugarri komuna?**
- a) Pigmentua.
 - b) Testuraren hezetasuna.
 - c) Erabili beharreko disolbatzailea.
 - d) Zuzenak dira denak.
246. **Zurgintzan, mihiztadura angeluar laueta faktorerik garrantzitsuena ahoen eta zirien arteko doitasunezko ahokadura da. Horrela mihiztatutako piezek zer angelu osatu behar dute?**
- a) 30 gradu.
 - b) 45 gradu.
 - c) 90 gradu.
 - d) 15 gradu.
247. **Zer pintura erabiliko litzateke sukalde bateko sabaian gasolio-orban bat kentzeko?**
- a) Pintura plastikoa.
 - b) Olio-pintura matea.
 - c) Tenple-pintura.
 - d) Pintura opakua.

248. **Zer beste izen du trementina-esentziak?**

- a) Amoniakoarekin.
- b) Lixiba.
- c) Agoarrasa.
- d) Oliba-olioa.

249. **Gutxienez zer zabalera izan behar dute zerbitzukoak ez diren eskailerek?**

- a) Metro bat eta erdi.
- b) Metro bete.
- c) 80 zentimetro.
- d) Metro-erdi bat.

250. **Pintura plastikoa. Nola lehortzen da?**

- a) Uraren lurruntze hutsez.
- b) Iragazkortze bidez.
- c) Iragazgaizte bidez.
- d) Inplosio bidez.

251. **Olio-pintura. Nola lehortzen da?**

- a) Astiro.
- b) Azkar.
- c) Xurgapen bidez.
- d) a eta c erantzunak zuzenak dira.

252. **Tenple-pintura honela osatuta dago:**

- a) Kolofonia-kola eta karbonato-hidroxidoa.
- b) Landare- edo animalia-kola eta kaltzio sulfato edo karbonatoa.
- c) Erretxinak eta kaltzio karbonatoa.
- d) Landare- edo animalia-kola eta CO₂-a.

253. **Zer konposizio dute silikato-pinturek?**

- a) Minerala.
- b) Lengoia funtzionala.
- c) Gantzekoa.
- d) Zuzenak dira denak.

254. **Zer izen du pinturari kolorea emateko erabiltzen den osagaiak?**

- a) Aditiboa.
- b) Akrilikoa.
- c) Pigmentua.
- d) Bat ere ez da zuzena.

255. **Zertarako erabiltzen da pintura zigilatzailea?**

- a) Gainazalei distira emateko.
- b) Filmaren tonua edo kolorea finkatzeko.
- c) Gainazal baten poroak ixteko.
- d) Denak zuzenak dira.

256. **Baldintza hauetako zein EZ da pinturek izan beharreko ezaugarri bat?**

- a) Fungizida.
- b) Elastikotasun nahikoa.
- c) Kolore-egonkortasuna.
- d) Zuzenak dira denak.

257. **Pintura plastikoa, funtsean, honela osatuta dago:**

- a) Polimerizazioz lehortzen diren erretxina edo materia plastikoen ur-emultsio bat da, argipean aldatzen ez diren pigmentu barreiatuak dituen.
- b) Eragile atmosferikoekiko erresistentzia duten zuntzen eta pigmentu artifizial ez-organikoen nahaste bat da.
- c) Uraren eta pigmentu artifizial organikoen nahaste bat.
- d) Aurreko bi erantzunak ez dira zuzenak.

258. **Zein da pintura plastikoen ezaugarria?**

- a) Lehortu ondoren, tonu mate edo satinatu atseginak ematen dituzte, denborarekin aldatzen ez direnak eta luze irauten dutenak.
- b) Emateko errazak dira, oso azkar lehortzen dira eta estaltze-ahalmen handia dute, baita paramentu heze eta garbitu daitezkeenetan ere.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- d) Aurreko bi erantzunak ez dira zuzenak.

259. **Zein da pintura plastikoen ezaugarria?**

- a) Uretan disolbagarriak dira, astiro lehortzen dira, ez dute zaporerik eta ez dute ia arrastorik uzten erremintetan; hala, erremintak errazago garbitzen dira.
- b) Disolbatzailetan disolbagarriak dira, astiro lehortzen dira eta usaingabeak dira; horregatik, errazago garbitzen dira.
- c) Uretan disolbagarriak dira, azkar lehortzen dira, usaingabeak dira, eta ez dute ia arrastorik uzten erremintetan; hala, erremintak errazago garbitzen dira.
- d) Bat ere ez da zuzena.

260. **Zein da pintura plastiko satinatuen ezaugarria?**

- a) Akabera matearena baino finagoa eta distiratsuagoa da, eta zikinkeriarekiko eta zahartzearekiko erresistenteagoa da.
- b) Akabera matearena baino finagoa eta distiratsuagoa da, baina zikinkeriarekiko eta zahartzearekiko erresistentzia txikiagoa du.
- c) Akabera ez da matearena bezain fin eta distiratsua, baina zikinkeriarekiko eta zahartzearekiko erresistenteagoa da.
- d) Akabera ez da matearena bezain fin eta distiratsua, baina zikinkeriarekiko eta zahartzearekiko erresistentzia txikiagoa du.

261. **Nolakoa izaten da plastea emateko espatularen orria?**
- a) Zurruna da, eta espatula normalek baino zabalera txikiagoa du.
 - b) Altzairu malgukoa, konbentzionalak baino laburragoa eta zabalagoa.
 - c) Triangelu-formakoa.
 - d) Hexagono-formakoa.
262. **Zerk ematen digu aukera brotxa baten zurden luzera erregulatzeko?**
- a) Zingila.
 - b) Lokarria.
 - c) Galanda.
 - d) Bat ere ez da zuzena.
263. **Zer tresna erabiltzea komeni da horma ondoan dauden hodiak margotzeko?**
- a) Eskuila ukondotua.
 - b) Brotxa.
 - c) Brotxa-erdia.
 - d) Arrabola.
264. **Osasuna zaintzea:**
- a) Enpresaburuak bermatzen du.
 - b) Langileak eskatu behar du.
 - c) Nahitaezkoa da.
 - d) Langileak bermatzen du.
265. **Zer altuerataraino erabil daitezke asto gaineko aldamioak txarrantxarik gabe?**
- a) 5 metroraino.
 - b) 2 metroraino.
 - c) 3 metroraino.
 - d) 8 metroraino.
266. **Nork ordezkutzen ditu langileak prebentzioaren arloan?**
- a) Langileen ordezkaria.
 - b) Prebentzio-ordezkariak.
 - c) Prebentzio-teknikariak.
 - d) Gobernua.
267. **Zer zabalera izan behar dute, gutxienez, aldamio-plataformek?**
- a) 50 cm.
 - b) 60 cm.
 - c) Aldamioaren zabalera osoa.
 - d) 2 metro

268. **Zer erabiliko dugu olio-pintura emateko?**
- a) Brotxa.
 - b) Zurda luzeko arrabola.
 - c) Esponja-arrabola.
 - d) Zuzenak dira denak.
269. **Zer akabera mota dute zementu-pinturek?**
- a) Satinatua.
 - b) Matea.
 - c) Distiratsua.
 - d) Denak faltsuak dira.
270. **Zer pintura mota dira pintura lakatu esaten zaienak?**
- a) Tenple-pinturak.
 - b) Esmalte-pinturak.
 - c) Pintura plastikoak.
 - d) a eta c erantzunak zuzenak dira.
271. **Zein da pintura plastiko mateen ezaugarria?**
- a) Garbitu egin daitezke, eta egokiagoak dira horma irregularretan erabiltzeko.
 - b) Ezin dira garbitu, eta egokiagoak dira horma homogeneoetan erabiltzeko.
 - c) Aurreko bi erantzunetako bat ere ez da zuzena.
 - d) a eta b erantzunak zuzenak dira.
272. **Pinturan, zer izendatzen du "orraztu" terminoak?**
- a) Pistolaz aplikatutako pinturak duen erliebe-itxura.
 - b) Fantasia pastaren aplikazio mota bat.
 - c) Zuzenak dira biak.
 - d) a eta b erantzunak ez dira zuzenak.
273. **Pinturak eta bernizak prestatzeko erabiltzen den erretxina:**
- a) Uretan eta alkoiletan disolbatzen da.
 - b) Ez da disolbatzen alkoiletan, baina bai uretan.
 - c) Alkoiletan disolbatzen da, baina uretan ez.
 - d) Lurruntan disolbatzen da.
274. **Pinturaren oinarritzko osagaiak hauek dira:**
- a) Euskarria, kargak, pigmentuak eta aditiboak.
 - b) Euskarri finkoa, aglutinatzailea, pigmentua eta aditiboak.
 - c) Euskarri lurrunkorra, disolbatzaileak, kargak eta aditiboak.
 - d) Euskarria, trakzioa, xurgagarria eta balaztaketa.

275. **Nolakoa da silikato-pintura?**

- a) Ignifugoa.
- b) Hidrofugoa.
- c) a eta b erantzunak zuzenak dira.
- d) Leherkorra, airearekin kontaktuan jarritz gero.

276. **Tenple-pintura honelakoa izan daiteke:**

- a) Esmaltea.
- b) Koladuna.
- c) Kareduna.
- d) CO₂-duna.

277. **Espektroko kolore guztiak hiru kolore primario hauetatik datoz:**

- a) Gorria, horia eta urdina.
- b) Gorria, urdina eta berdea.
- c) Gorria, urdina eta horia.
- d) Gorria, urdina eta grisa.

278. **Zer kolore lortzen da hiru kolore primarioak nahasita?**

- a) Urdina.
- b) Magenta.
- c) Zuria.
- d) Beltza.

279. **Zer kolore lortzen da gorria eta berdea nahasita?**

- a) Horia.
- b) Magenta.
- c) Ziana.
- d) Grisa.

280. **Pigmentuak honela sailkatu daitezke:**

- a) Naturalak, artifizialak eta inorganikoak. Pigmentu inorganikoak konposizio definituko mineralez osatuta daude, eta lurrik, fosiletatik eta abarretatik lortzen dira.
- b) Naturalak, artifizialak eta sintetikoak. Pigmentu naturalak, bestalde, honela sailkatu daitezke: organikoak, baldin eta animalia-jatorrikoak badira, eta inorganikoak, baldin eta landare- edo mineral-jatorrikoak badira.
- c) Naturalak eta artifizialak eta inorganikoak. Pigmentu artifizial garrantzitsuenetako bat burdina da.
- d) Aurreko erantzun guztietako bat ere ez da zuzena.

281. **Eraikinetako esku-eskailera finkoen gutxieneko dimentsioak hauek dira:**

- a) Gutxieneko zabalera 40 zentimetro da, eta mailen arteko gehieneko distantzia 30 zentimetro.
- b) Gutxieneko zabalera 70 zentimetro da, eta mailen arteko gehieneko distantzia 50 zentimetro.
- c) Ez daude baimenduta.
- d) Gutxieneko zabalera 40 eta 70 zentimetro artekoa da, eta mailen arteko gehieneko distantzia 30 eta 50 zentimetro artekoa.

282. **Lantokietako giro-baldintzei dagokienez, hau bete behar da, ahal dela:**

- a) Saihestu egin behar dira muturreko tenperatura eta hezetasunak, bat-bateko tenperatura-aldaketak, aire-korronteak, usain desatseginak eta gehiegizko irradiazioa.
- b) Ez dute arriskurik sortu behar langileen segurtasunerako eta osasunerako edo ez dute deserosotasuna eragin behar.
- c) a eta b erantzunak zuzenak dira.
- d) a eta b erantzunak ez dira zuzenak.

283. **Zer kasutan izan behar dituzte aldagelak lantokiek?**

- a) Lanerako arropa berezia jantzi behar duten 10 langile baino gehiago daudenean.
- b) Langileek lanerako arropa berezia jantzi behar dutenean eta arropa hori beharrezkoa denean lan egin ahal izateko.
- c) Langileek lanerako arropa berezia jantzi behar dutenean eta ezin zaienean eskatu, osasun- eta lotsa-arrazoiengatik, beste lokal batzuetan arropaz aldatzea.
- d) Okerrak dira aurreko erantzun guztiak.

284. **Aldagelak beharrezkoak ez direnean, gutxienez hau izan behar da:**

- a) Arropa uzteko esekilekuak edo armairuak, eta, inguruan, garbigelak, ispiluz, konketaz eta txorrotako urez —beroa, beharrezkoa bada—, xaboiz eta banakako toallaz (edo lehortzeko berme higienikoak dituen beste sistema batez) hornituak.
- b) Ur bero eta hotzeko dutxak, izerditze larria eragiten duten lanak egiten direnean.
- c) Ez dago nahitaez bete beharreko inolako instalaziorik.
- d) a erantzuna, baina baldintza batekin: osagarri horien gastuak langileek ordainduko dituzte.

285. **Langileen eskubideak:**

- a) Segurtasunari dagozkion neurrien kostua.
- b) Babes-mailak hobetzeko ekintza iraunkorra.
- c) Babes eraginkorra laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan.
- d) Zuzenak dira aurreko erantzun guztiak.

286. **Langileen betebeharrak:**

- a) Segurtasunari dagozkion neurrien kostua.
- b) Babes-mailak hobetzeko ekintza iraunkorra.
- c) Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.
- d) Kasu jakin batzuetan norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.

287. **Zirkulu kromatikoan, koloreen sailkapen batzuk daude. Kolore hauetako zein jotzen dira kolore hoztat?**
- a) Urdina, berdea, morea eta ziana.
 - b) Gorria, urdina, berdea eta magenta.
 - c) Urdina, berdea, morea eta horia.
 - d) Urdina, beltza, grisa eta gorria.
288. **Zirkuitu batetik pasatzen ari den korrontearen intentsitatea neurtu nahi badugu, nola konektatu behar dugu amperemetroa zirkuituan?**
- a) Seriean.
 - b) Paraleloan.
 - c) Mistoan.
 - d) Berdin dio nola, baldin eta pasatzen diren elektroiak zenbatzen baditu.
289. **Formula hauetako zein da Ohm-en legea?**
- a) $V = R / I$
 - b) $R = V \times I$
 - c) $I = V / R$
 - d) $R = I / V$
290. **Eroale baten erresistentzia hauen mende dago:**
- a) Eroalearen luzera, eroankortasuna eta diametroa.
 - b) Eroalearen eroankortasuna, sekzioa eta distantzia.
 - c) Luzera, sekzioa eta konduktantzia.
 - d) Eroalearen luzera, erresistibitatea eta sekzioa.
291. **Eroankortasuna honen alderantzizkoa da:**
- a) Inpedantzia.
 - b) Konduktantzia.
 - c) Erresistibitatea.
 - d) Erreaktantzia.
292. **Zein da energia elektrikoaren unitatea?**
- a) Watta.
 - b) Joule $\times$ ordua.
 - c) Erga.
 - d) Kilowatt-a $\times$ ordua.
293. **Nola adierazten da motor elektrikoen potentzia?**
- a) Wattetan.
 - b) Jouletan.
 - c) Nw-etan.
 - d) Kwh-tan.

294. **Zirkuituetan, nondik nora zirkulatzen du korronteak?**
- a) Potentzial txikiko puntuetatik potentzial handikoetara.
 - b) Potentzial berdineko puntuen artean.
 - c) Potentzial handiko puntuetatik potentzial txikikoetara.
 - d) Potentzial txikiko puntuetatik neutrora.
295. **Zer da eroale baten erresistentzia elektrikoa?**
- a) Tentsioa pasatzeko zailtasuna.
 - b) Potentzial-karga pasatzeko zailtasuna.
 - c) Korronte elektrikoa pasatzeko zailtasuna.
 - d) Energia elektrikoa pasatzeko zailtasuna.
296. **Eroale baten erresistentzia elektrikoa:**
- a) Handiagoa da zenbat eta luzeagoa izan.
 - b) Handiagoa da zenbat eta sekzio handiagoa izan.
 - c) Berdina da material guztietan.
 - d) Handiagoa da zenbat eta tentsio handiagoa izan.
297. **Zer izen du korronteak noranzko berean zirkulatzen duenean eta balio konstantea duenean?**
- a) Korronte pultsaria.
 - b) Korronte zuzena.
 - c) Korronte alternoa.
 - d) Arrapala-korronte.
298. **Korronte alternoak propietate hauek ditu:**
- a) Bi noranzkoetan zirkulatzen du, eta konstantea da.
 - b) Noranzko bakarrean zirkulatzen du, eta elektroikantitate aldakorra da.
 - c) Bi noranzkoetan zirkulatzen du, eta karga aldakorra da.
 - d) Bi noranzkoetan zirkulatzen du.
299. **Zer izen du negatiboki kargatutako atomo batek?**
- a) Katioia.
 - b) Anioia.
 - c) Elektroia.
 - d) Protoia.
300. **Zer behar dugu korronte elektriko bat sortzeko eta iraunarazteko?**
- a) Sorgailu bat eta hargailu bat.
 - b) Sorgailu bat eta eroale bat.
 - c) Sorgailu bat, hargailu bat eta eroale bat.
 - d) Hargailu bat eta eroale bat.

301. **Zein da elektroien zirkulazio-noranzkoa?**

- a) Polo negatibotik polo positiborantz.
- b) Potentzialarena.
- c) Noranzko konbentzionala.
- d) Polo positibotik polo negatiborantz.

302. **Nola banatzen da tentsioa serie-zirkuitu batean?**

- a) Proportzionalki erresistentzia guztien artean.
- b) Hargailuetako bakoitzean galtzen da.
- c) Sorgailuen kontsumoaren arabera.
- d) Babes-eroalearen zirkuitutik.

303. **Honela definitzen da Ohm-en legea:**

- a) Zirkuitu elektriko batean, zirkulatzen duen korrontearen intentsitatea tentsioa-
rekiko zuzenki proportzionala da, eta erresistentziarekiko alderantziz propor-
tzionala.
- b) Zirkuitu elektriko bat da, non intentsitatea tentsioarekiko zuzenki proportzionala
baita, eta erresistibitatearekiko alderantziz proportzionala.
- c) Zenbat eta handiagoa izan potentzial-diferentzia, handiagoa da elektroikorrontea,
eta zirkuituaren erresistentziarekiko alderantziz proportzionala da.
- d) Zirkuitu batean dagoen tentsioa karga elektrikoarekiko eta zirkuituaren erresisten-
tziarekiko zuzenki proportzionala da.

304. **Zer izen du bi eroale edo gehiagoren elkartze-guneak?**

- a) Maila.
- b) Korapiloa.
- c) Adarra.
- d) Linea.

305. **Zer koloretakoak izaten da zurginen metroa?**

- a) Horia.
- b) Urdina.
- c) Beltza.
- d) Berdea.

306. **Zer neurri-unitate erabiltzen du sonometroak?**

- a) Dezibel-a.
- b) Lux-a.
- c) Hertz-a.
- d) Watta.

307. **Itsasgarri hauetako zein da ia istantekoa?**
- a) Silikona.
 - b) Zurgin-kola.
 - c) Ukipen-kola.
 - d) Zianoakrilatoa.
308. **Zianoakrilatoa itsasgarri bat da. Zerekin degradatzen da?**
- a) Agoarrasarekin.
 - b) Urarekin.
 - c) Hezetasunarekin eta urarekin.
 - d) Ozpinarekin.
309. **Zertarako erabiltzen da dardaragailua?**
- a) Hormigoirako.
 - b) Pinturarako.
 - c) Igeltsuetarako.
 - d) Iztukatuetarako.
310. **Zer izen du trenkadan finkatzen den ateetarako zurezko elementua?**
- a) Aurremarkoa.
 - b) Markoa.
 - c) Juntura-estalkia.
 - d) Gontza.
311. **Zur hauetako zein da gogorrena?**
- a) Pinua.
 - b) Gaztaina.
 - c) Ramon-a edo ojoche-a (*Brosimum alicastrum*).
 - d) Jatoba (*Hymenaea courbaril*).
312. **Zer izen du tioldarrarekin aplikatzen den pintura apaingarriak?**
- a) Gotelea.
 - b) Tenple leuna.
 - c) Kare-iztukua.
 - d) Marmolina.
313. **Zer izen du suarekin edo beroarekin harrotzen den pinturak?**
- a) Ignifugoa.
 - b) Intumeszentea.
 - c) Hidrofugoa.
 - d) Silikatoa.

314. **Zer kolore erabili behar da fase-eroaleetan?**
- a) Beltza, marroia edo grisa.
 - b) Berdea, urdina edo horia.
 - c) Marra hori eta berdeak.
 - d) Gorria.
315. **Zer elementuk babesten ditu zirkuituak zirkuitulaburretatik?**
- a) Magnetotermikoa.
 - b) Erreaktantzia.
 - c) Kontaktorea.
 - d) Diferentziala.
316. **Zer galarazteko jartzen dira sifoiak instalazioetan?**
- a) Hondakin solidoak igarotzea.
 - b) Usainak igarotzea.
 - c) Ezer ez.
 - d) Hondakin solidoak eta usainak igarotzea.
317. **Beirazko ate hauetako zeinek uzten du argia hobekien pasatzen?**
- a) Zeharrargiak.
 - b) Gardenak.
 - c) Islatzaileak.
 - d) Opakuak.
318. **Kristalean zuloak egiteko, nola jarri behar da zulagailua?**
- a) Abiadura handian.
 - b) Abiadura txikian.
 - c) Berdin dio.
 - d) Abiadura ertainean.
319. **Zer izen du torlojuarekin batera piezei heltzeko balio duen elementuak?**
- a) Azkoina.
 - b) Larakoa.
 - c) Presio-torlojua.
 - d) Larako hegalduna.
320. **Elementu hauetako zein da bigunena?**
- a) Diamantea.
 - b) Korindoia.
 - c) Grafitoa.
 - d) Altzairua.

321. **Zer arretazko neurri hartu behar dira zirkuitu elektriko batean lanean hasi aurretik?**
- a) Erreminta guztiak prest izatea.
 - b) Irratia itzalia izatea.
 - c) Gorputzaren posizioa egokia izatea.
 - d) Egiatzatzea zirkuitua korrante elektrikitik deskonektatua dagoela.
322. **Lan-munduan, zer da NBEa?**
- a) Narritaduratik babesteko ekipamendua.
 - b) Norbera babesteko ekipamendua.
 - c) Neurriak bideratzeko ekipamendua.
 - d) Noiznahi babesteko ekipamendua.
323. **Lorategi batean entxufe estanko bat jartzen badugu, norantz EZ du ireki behar haren tapak?**
- a) Gorantz.
 - b) Beherantz.
 - c) Eskuinerantz.
 - d) Ez du irekierarik.
324. **Eroanbide hauetako zeinek egon behar du goragoko maila batean?**
- a) Estolda.
 - b) Edateko urarena.
 - c) Telefonoarena.
 - d) Elektrizitatearena.
325. **Zer produktu erabiliko zenuke marmolezko mahai bat garbitzeko eta mantentzeko?**
- a) Ozpina eta espartzu metalikoa.
 - b) Espartzu sintetikoa eta lixibak.
 - c) Ur oxigenatutan disolbatutako gatz xehea.
 - d) Kloro-soluzioa.
326. **Zura lehortzeko prozesu ohikoenetako bat, zura lehortegian sartu ondoren, hau da:**
- a) Aire freskoa ematea.
 - b) Gehienbat ur-lurruna injektatzea.
 - c) Presio bidez.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
327. **Zer da zuraren lehortze natural azeleratua?**
- a) Oso giro beroa ematea.
 - b) Zurak bata bestetik bereiztea, hobeto aireztatzeko.
 - c) Zura urperatzea, ura sar dadin izerdiaren orde.
 - d) Ingurune anaerobiko bat ematea.

328. **Zura lehortzean, norabide hau saihestu behar da:**
- a) Lehorketa axiala.
 - b) Lehorketa tangentiala.
 - c) Lehorketa erradiala.
 - d) Aurreko erantzun guztietako bat ere ez da zuzena.
329. **Zurgintza-lanetako arriskuen ebaluazioaren arabera, hartu beharreko prebentzio-neurrien artean hau EZ dugu inoiz erabili behar:**
- a) Babes integraleko betaurreko estankoak erabiltzea.
 - b) Eskularru egokiak erabiltzea doikuntzarako, hortzak aldatzeko eta abarretarako.
 - c) Bultzagailuak erabiltzea makinak elikatzeko.
 - d) Eskularruak erabiltzea zurgintzako makinak erabiltzean.
330. **Zurezko egituren eraikuntza tradizionalan, hauek dira luzatze-junturarik erabilienak:**
- a) Zur-erdikako junturak.
 - b) Alaka-junturak.
 - c) Buloi bidezko junturak.
 - d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
331. **Zer izen du bi pieza 45°-ko angeluan ahokatuta egiten den mihiztadurak?**
- a) Miru-buztana.
 - b) Ziri aizunak.
 - c) Ingletea.
 - d) Ziri irekia.
332. **Zertarako diseinatuta dago horma-zerra edo zerra bertikala?**
- a) Horizontalean ezarritako panelak ebakitzeko.
 - b) Ateak eta leihoak eraikitzeke ziriak egiteko.
 - a) Bertikalean ezarritako panelak ebakitzeko.
 - d) Enborrak luzetara ebakitzeko.
333. **Zer da "txantiloiz pintatzea"?**
- a) Lorezaintzan erabiltzen den teknika bat.
 - b) Hormak eta altzariak dekoratzeko apaindura-teknika bat.
 - c) Iturgileek hodiak ebakitzeko erabiltzen duten teknika bat.
 - d) Hormigoi-orea egiteko modu bat.
334. **Zer mantentze-lan mota da akats edo hutsegite baten ondorioz egiten dena?**
- a) Mantentze zuzentzailea.
 - b) Mantentze prediktiboa.
 - c) Prebentziozko mantentzea.
 - d) Mantentze selektiboa.

335. **Zein da eskailerak igotzeko, jaisteko eta eskaileretatik lan egiteko modua?**
- a) Langileari erosoena gertatzen zaiona.
 - b) Eskailerak aurrean dituela.
 - c) Eskailerei bizkarra emanda.
 - d) Eskailerak saiheska dituela.
336. **Eraikin batean saneamendu-instalazioak ondo funtziona dezan, zer maiztasunez ikuskatu eta libratu behar dira sifoiak eta balbulak?**
- a) Sei hilean behin.
 - b) Huste-emaria ohartzeko moduan urritzen den bakoitzean edo buxaduraren bat gertatzen den bakoitzean.
 - c) Urtero, euri-sasoiaren etorrerarekin batera.
 - d) Huste-sarearen buxada oso bat gertatzen den bakoitzean
337. **Zer izen du horma batean hodiak, kableak eta abar landatzeko egiten den ildo edo kanalak?**
- a) Albo-juntura.
 - b) Erretena.
 - c) Juntura.
 - d) Pitzadura.
338. **«Errakoreak», normalean, lan hauetan erabiltzen dira:**
- a) Iturgintzan.
 - b) Igeltserotzan.
 - c) Mezularitzan.
 - d) Soldaduran.
339. **Igeltserotzan, hauek dira adreilu baten hiru gainazalak:**
- a) Luzea, zabala eta hondoa.
 - b) Aurpegia, bizkarra eta burua.
 - c) Oinplanoa, altxaera eta profila.
 - d) Panderetea, kontramaila eta zeharraldea.
340. **Zer izen du bizkarrean edo buruan zuloak dituen adreiluak?**
- a) Adreilu hobetua.
 - b) Adreilu trinkoa.
 - c) Adreilu barne-hutsa.
 - d) Ageriko adreilua.
341. **Entxufe bat ordezteko, hau da egin beharreko lehen urratsa:**
- a) Mekanismoa desmuntatzea.
 - b) Babes-eskularruak janztea.
 - c) Zirkuituko korrontea etetea.
 - d) Korronte elektrikoaren intentsitatea neurtzea.

342. **Zer erabiltzen da korrante elektrikoaren intentsitatea neurtzeko?**
- a) Voltmetroa
 - b) Amperometroa.
 - c) Ohmmetroa
 - d) Emari-neurgailua.
343. **20 × 20 zentimetroko zenbat baldosa behar dira 7,60 metro karratuko zoladura bate-rako?**
- a) Ehun eta laurogei.
 - b) Ehun eta hirurogeita hamasei.
 - c) Ehun eta laurogeita hamar.
 - d) Ehun eta laurogeita hamasei.
344. **Zer izen du, Behe-tentsioko Arautegi Elektroteknikoaren arabera, eroale bat baino gehiago —haietako bat isolatugabea izan daiteke— dituen kableak?**
- a) Kable eroaleaniztuna.
 - b) Kable polobakarra.
 - c) Kable malgua.
 - d) Neutro zentrokidedun kablea.
345. **Eroale batek jasaten duen tentsioaren eta eroale horretatik zirkulatzen duen korrontearen intentsitatearen arteko erlazioa, zeina eroalearen erresistentziaren araberakoa baita, lege batek adierazten du. Zer izen du lege horrek?**
- a) Ohm-en legea.
 - b) Kirchoff-en lehen legea.
 - c) Hooke-ren legea.
 - d) Kirchoff-en bigarren legea.
346. **Zer erreminta erabili behar da iturgintzako konponketa batean, hodi kromatu bati heltzeko eta mugitzen ez uzteko, kromozko bainua marratu eta hondatu gabe?**
- a) Grifa.
 - b) Uhal-giltza.
 - c) Stillson giltza.
 - d) Kate-giltza.
347. **Instalazio elektriko batean, argi-puntu bat bi etengailutatik itzali eta pitz daiteke. Zer etengailu mota dira horiek?**
- a) Kontaktu bakuneko etengailuak.
 - b) Etengailu kommutatuak.
 - c) Etengailu gurutzatuak.
 - d) Etengailu tenporizadoredunak.

348. **Zer izen du karrakatzeko erabiltzen den aitzur txikiak?**
- a) Errasketa.
 - b) Igeltsero-aitzurra.
 - c) Palarra.
 - d) Mutxarda.
349. **Zer neurtzeko balio du kalibreak?**
- a) Motor elektrikoek birak doitzeko.
 - b) Gainazalak neurtzeko.
 - c) Diametroak eta lodierak neurtzeko.
 - d) Angeluak gradu, minutu eta segundotan neurtzeko.
350. **Beruna ohiko erreminta da igeltserotzan. Zertarako erabiltzen da?**
- a) Hormigoia kofratuan zanpatzeko.
 - b) Emokadurak hedatu eta leuntzeko.
 - c) Bertikaltasuna markatzeko.
 - d) Horizontaltasuna markatzeko.
351. **Zer izen du uhin elektromagnetikoen bidezko bero-transferentziak?**
- a) Konbekzioa.
 - b) Erradiazioa.
 - c) Eroapena.
 - d) Aireztapena.
352. **Zer instalazio motatan dira konpresorea, lurrungailua, kondentsadorea eta espansio-balbula elementu nagusiak?**
- a) Berokuntza-instalazioa.
 - b) Aire girotuko instalazioa.
 - c) Suteak itzaltzeko instalazioa.
 - d) Etxeko ur beroko instalazioa.
353. **Eraikinetako Instalazio Termikoen Arautegiaren arabera, zer izen du klimatizazio-instalazio batean energia termikoa garraiatzeko erabiltzen den inguruneak?**
- a) Sorgailua.
 - b) Fluido eroalea.
 - c) Dezipola.
 - d) Eguzki-kolektore termikoa.

354. **Etxeko ur beroko instalazioetan, banaketa-sareak itzulerako sare batez hornituta egon behar du urrutien dagoen kontsumo-punturainoko joaneko hodiaren luzera hau edo handiagoa denean:**
- a) 15 metro
 - b) 2 metro
 - c) 30 metro
 - d) 150 metro
355. **Zer zoru-motatan erabiltzen da zoruen kristalizazioa?**
- a) Era guztietako zoruetan.
 - b) Zoru zeramikoetan.
 - c) Gomazko zoruetan.
 - d) Terrazo edo marmolezko zoruetan.
356. **Azulejuetako koipe-orbanak kentzeko, zer erabili ohi da?**
- a) Ur beroa, amoniakoarekin nahasita.
 - b) Ur bero langarreztatua.
 - c) Salfumana.
 - d) Ozpina.
357. **Autogarbigailuek:**
- a) Presiozko ura erabiliz kentzen dute zikina.
 - b) Ur-lurrunarekin garbitzen dute.
 - c) Zorua eskuilatu, garbitu eta xurgatu egiten dute.
 - d) Zorua garbitu eta lehortu egiten dute.
358. **Garbiketa-teknika batean, gainazaletan metatu diren zikin-hondarren aurka ura jaurtitzen da zikina erauzteko eta ur-korrontearekin eramateko. Zer izen du teknika horrek?**
- a) Ekorketa mekanikoa.
 - b) Xurgatze hezea.
 - c) Ekorketa mistoa.
 - d) Ur-jaurtiketa.
359. **Detergenteen oinarritzko propietatea da uretan sartuta "ukipen-tentsioa" murriztea; hala, soluzioa errazago sar daiteke. Zer izen erabili ohi da propietate hori izendatzeko?**
- a) Dispertsioa.
 - b) Hezegarritasuna.
 - c) Esekidura.
 - d) Egonkortzea.

360. **Bada garbiketa-produktu bat eragiketa bakar batean garbitu, koipea kendu eta desinfektatzen duena, eta koipe-arrastoak, mikroorganismo patogenoak eta usain txarrak kentzen dituena. Zer motatakoa da?**
- a) Koiegetzaile hutsa.
 - b) Koiegetzaile-desinfektatzailea.
 - c) Desinfektatzaile hutsa.
 - d) Garbitzaile xaboiduna.
361. **Zer motatakoa da 6 eta 9 bitarteko pH-a duen detergentea?**
- a) Azido sendoa.
 - b) Base sendoa.
 - c) Azido ahula.
 - d) Neutroa.
362. **Instalazioak garbitzeko, garbiketako langileek kotoizko maskara erabiltzea:**
- a) edo ez erabiltzea garbiketaz arduratzen diren langileek erabakitzen dute.
 - b) nahitaezkoa da produktu toxiko edo urragarriak erabiltzen direnean.
 - c) nahitaezkoa da beti.
 - d) nahitaezkoa da aireztapen urriko zonetan lan egiten bada.
363. **Kutxa batean «soda kaustikoa» legenda aurkitzen badugu, zer konposaturi dagokio?**
- a) Sodio peroxidoa.
 - b) Sodio hidroxidoa.
 - c) Sodio kloruroa.
 - d) Manganeso kloruroa.
364. **Garbiketa-produktu baten etiketak «R20/21» dio. Zer adierazten du?**
- a) Kaltegarria dela larruazala ukituz gero eta irentsiz gero.
 - b) Kaltegarria dela irentsiz gero.
 - c) Kaltegarria dela arnastuz gero eta larruazala ukituz gero.
 - d) Erreakzio bortitza duela ura ukituz gero.
365. **Arnastuz gero, irentsiz gero edo larruazalean sartuz gero efektu larriak, edo baita heriotza ere, eragin ditzaketen substantzia eta prestakinak, osasunean dituzten efektuei dagokienez, honela izendatzen dira:**
- a) Narritagarriak.
 - b) Mutagenoak.
 - c) Kaltegarriak.
 - d) Korrosiboak.

366. **Beren propietate fisiko-kimikoen ondorioz, substantzia eta prestakin batzuek, beste substantzia batzuekin —batez ere, substantzia sukoiekin— kontaktuan jartzean, oso erreakzio exotermikoa sortzen dute. Zer izen dute?**
- a) Leherkorrak.
 - b) Erregarriak.
 - c) Sukoia.
 - d) Sentsibilizatzaileak.
367. **Zenbat prebentzio-ordezkarik hautatu behar dira 90 langile dituen enpresa batean?**
- a) 5
 - b) 4
 - c) 3
 - d) 2
368. **Enpresaburuak kanpoko pertsonen edo zerbitzuen parte-hartzea eskatuko balu, salbuetsiko luke horrek lan-arriskuen arloan duen erantzukizunetik?**
- a) Ez, ez luke salbuetsiko erantzukizunetik.
 - b) Bai.
 - c) Kasuen arabera.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
369. **Enpresetako prebentzio-ordezkariek:**
- a) Enpresaburuak izendatzen ditu.
 - b) Langileek izendatzen dituzte zuzenean.
 - c) Langileen ordezkariak izendatzen dituzte beren artean.
 - d) Denak zuzenak dira
370. **Morteroa erabiltzeko epea pasatu ondoren, zer egin behar dugu soberakinarekin?**
- a) Berriz Oratu, Eta Erabili
 - b) Baztertu
 - c) Berri Bati Erantsi, Eta Berriz Erabili
 - d) Hartxintxarrarekin Nahastu
371. **Nolakoa da gubiaren ebaki-profila?**
- a) konikoa
 - b) zuzena
 - c) kurbatua
 - d) laua

372. **Zer produktuk behar ditu aplikazio gehien zurezko gainazal batek akabera egokia izan dezan?**
- a) argizariak
 - b) olioak
 - c) bernizak
 - d) kolak
373. **Inguratzeko zerra beste izen honekin ere ezagutzen da:**
- a) Zerra bizkarduna.
 - b) Atzera-aurrerako zerra.
 - c) Zerra zirkularra.
 - d) Eskuaira-zerra.
374. **Torloju asimetrikoa edo ahate-lepokoa honetarako erabiltzen da bereziki:**
- a) Pieza txikiak finkatzeko
 - B) Pieza angeluzuzenak finkatzeko
 - c) Pieza luzeak finkatzeko
 - d) Pieza karratuak finkatzeko
375. **Zer egiten du zirkuitu elektriko batek korrontea igarotzean eroaleek jartzen duten erresistentziari aurre egiteko?**
- a) Volt kopuru esanguratsu bat deskargatzen du fase bakar batera
 - b) Potentzial-diferentzia bat ezartzen du bi poloen artean
 - c) Intentsitatea handitzen du progresiboki.
 - d) Intentsitatea txikiagotzen du progresiboki.
376. **Zer erabiltzen da eroale elektriko baten korronte zuzeneko jarraitutasuna egiaztatzeko?**
- a) Jarraitutasun-neurgailu bat
 - b) Maiztasun-neurgailu bat
 - c) Termometro bat
 - d) Matxarda amperemetriko bat
377. **Zer da zeioa?**
- a) Estalki baten erpina
 - b) Igeltserotzako erreminta bat
 - c) Ez dago halakorik eraikuntzan
 - d) Lorezaintzako erreminta bat
378. **Zer beste izen du egozkailuak?**
- a) Puntzoia
 - b) Granetea
 - c) Pistoletea
 - d) Bihurkina

379. **Zer erregai erabiltzen da iturgintzan soldatzeko?**

- a) Gasolioa
- b) Butano gasa.
- c) Bentzenoa.
- d) Alkohol etilikoa

380. **Zurgintzan, «ziri» esaten zaio:**

- a) Inguru alakatuko eta forma salomonikoko barauts bati
- b) Zulatzeko makinan akoplatzeko zilindro hariztatu bati
- c) Mihizadura baten parte bati
- d) Ohol mehe bati

381. **Aparatu sanitarioak ipintzean:**

- a) Nibelazioa, finkapena eta konexioa egiaztatuko dira.
- b) Ez dira egiaztatuko nibelazioa, finkapena eta konexioa.
- c) Nibelazioa eta finkapena bakarrik egiaztatuko dira.
- d) Konexioa bakarrik egiaztatuko da.

382. **Norbera Babesteko Ekipamendu (NBE) bat baino gehiago batera erabiltzea eskatzen duten arrisku askotarikoak baldin badaude:**

- a) Lehenengo batzuk eta gero besteak erabiliko dira.
- b) Bateragarriak izan beharko dute, eta eraginkor izaten jarraitu, kasu bakoitzean dagokion arriskua kontuan hartuz.
- c) Bateriaezinak izan beharko dute, eta eraginkor izaten jarraitu, kasu bakoitzean dagokion arriskua kontuan hartuz.
- d) Bateragarriak izan beharko dute, eta ez dute izan behar eraginkor, kasu bakoitzean dagokion arriskua kontuan hartuz.

383. **Hodi esmaltatu bat baldin badaukagu eta estuera bat egin nahi badugu, zer giltza mota erabiliko dugu?**

- a) Hodi-formako giltza.
- b) Kate-giltza.
- c) Giltza ingelesa.
- d) Uhal-giltza.

384. **Prebentziorako eskuordeen eskumenak hauek dira:**

- a) Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, trebakuntza-ekintza hobetzeko.
- b) Zaintza- eta kontrol-lana egitea, lan-arriskuak prebenitzeko araudia betetzen dela egiaztatzeko.
- c) Enpresaburuak kontsulta egin behar die Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 33. artikuluan jasotako erabakien inguruan, erabakiok martxan jarri aurretik.
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

385. **Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 19. Artikuluak (Langileen prestakuntza) honela dio:**
- a) Lanorduen barruan eman behar zaio beti prestakuntza langileari.
 - a) Lanorduetatik kanpo eman behar zaio beti prestakuntza langileari.
 - c) Posible izanez gero, lanorduen barruan eman behar zaio prestakuntza langileari; ezin bada, beste ordu batzuetan emango da, baina gero kendu egin behar dira ordu horiek bete beharreko lanordu kopurutik.
 - d) Lanorduen barruan eman behar zaio beti prestakuntza langileari, eta bertan egon behar du beti prebentziorako eskuorde batek.
386. **Zein dira hodietako inkrustazioen eragile nagusiak?**
- a) Silizio-karbonatuak.
 - b) Kaltzio- eta magnesio-karbonatuak.
 - c) Sodio-karbonatuak.
 - d) Potasio-karbonatuak.
387. **Nola esaten zaie xaflak mozteko aizturrei?**
- a) Esmerilak.
 - b) Gubia.
 - c) Zizailak.
 - d) Aliketak
388. **Hauetako bat EZ da sarraila mota bat:**
- a) Landatzeko sarraila
 - b) Sarraila gainjarria
 - c) Sarraila hariztatua
 - d) Sarraila elektronikoa
389. **Non jarri behar da sarraila zilindriko baten kisketa instalatzeko zuloa?**
- a) Atearen goialdean, aurreko plakaren altuera berean.
 - b) Atearen ertzean, danborraren altuera berean.
 - c) Atearen erdian, danborraren altuera berean.
 - d) Atearen behealdean, danborraren altuera berean.
390. **Zer izenez ezagutzen da Stillson giltza?**
- a) Grifa
 - b) Giltza ingelesa
 - c) Dullan giltza
 - d) Allen giltza

391. **Ur-ihes bat izanez gero, zer egin behar da lehenik eta behin?**
- a) Suhiltzaileei deitu.
 - b) Eskuoialak ipini.
 - c) Ixteko giltzari eman.
 - d) Garbiketa-zerbitzuari deitu.
392. **Zer eratako hodiekin erabiliko dugu hodiak kurbatzeko kurrika?**
- a) Kobre suberatuzko, letoizko eta horma fineko altzairuzko hodiekin.
 - b) Berunezko eta polipropilenoazko hodiekin.
 - c) Burdinurtuzko hodiekin.
 - d) PVCzko hodiekin.
393. **Zer gertatzen da zirkulazio-abiadura bizkorregia izanez gero?**
- a) Hodiaren barruan kare-metakinak agertzen laguntzen du.
 - b) Kanpo-korrosioari laguntzen dio.
 - c) Zarata sortzen du, dardaren eraginez.
 - d) Biskositatea murrizten du.
394. **Eraikin bateko berokuntza-sistamarako energia-iturri berriztagarri bat erabiliko da. Hauetatik zein? :**
- a) Gasolioa.
 - b) Energia nuklearra.
 - c) Eguzkia edo haizea.
 - d) Haritz-egurra
395. **Zurezko altzari baten zer zatiri egiten dio eraso lehendabizi pipiak?**
- a) Altzariaren goialdeari
 - b) Altzariaren atzealdeari
 - c) Altzariaren hankei
 - d) Altzariaren erdialdeari
396. **¿Egokia da hezetasun-orban bat konpontzen hastea gertatu ondorengo egunean?**
- a) Bai, guztiz lehortu aurretik.
 - b) Hobe da pareta guztia bustitzea, era uniformean lehortu dadin gero.
 - c) Ez, hobe da lehenengo ondo lehortzea.
 - d) Bai, zenbat eta lehenago konpondu hezetasun-orbana, gutxiago zabalduko da.
397. **Zer zur da biguna eta kontratxapatuan erabiltzen dena?**
- a) Okumea
 - b) Haritza
 - c) Kaoba
 - d) Olibondoa

398. **Zer beste izen du arrabotak?**
- a) Marrusketa
 - b) Bastrena
 - c) Tupia
 - d) Leuntzailea
399. **Zer tresna erabiltzen da lurrerako hargunea neurtzeko?**
- a) Linea-analizagailua
 - b) Telurometroa
 - c) Lurmetroa
 - d) Skimer elektronikoa
400. **Zer tresna da oinarrizkoa sarraillak irekitzeko?**
- a) Gakordeak
 - b) Tentsio malguko tresnak
 - c) Espatula
 - d) Giltza konformatua